

aikor.

TOKIKOM

2024ko azaroa · #252



AMAIA CARPIO

Lurrari helduta

EUSKO LABELA DUEN ABELGORRIA

TREBETASUNA ETA PROFESIONALITASUNA

BASQUE
LABEL
HARATEGIAK

**BASQUE
LABEL
HARATEGIAK**
— %100 GURE —
BASERRITARREKIN



EUSKO LABEL PRODUKTUETAN
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO
EN PRODUCTOS CON EUSKO LABEL

ZURE BASQUE LABEL HARATEGIA

SONDIKA:
CARNICERÍA AITOR - Mikel Zarate, 2

hazi

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA
ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN,
DESARROLLO RURAL,
AGRICULTURA Y PESCA

aikor.

Argitaratzailea:
TOTOAN Txorierriko Euskara Elkarte
Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Altzora,
Darabilgu eta Tximintx komunitatea)

Zuzendaria:
Xabier Goienetxe

Erredakzio burua:
Itxaso Marina

Maketatzailea:
Aner Mentxaka

Publizitatea:
Ruth Bilbao (688 782 642)

Zuzentzaileak:
Iñaki Astorkiza
Oihana Astobieta

Kolaboratzaileak:
Belen Gana
Asier Oruetxebarria
Xabier Diaz
Josu Uribe
Idoia Andres
Juanjo Ortiz
@txiribita_mundi
Joanes Camara
Iñaki Olabarrieta
Jose Angel Mentxaka

Inprimategia:
Gertu

Banaketa:
Eragin

Ale kopurua:
8.000

Lege gordailua:
BI 137-02 ISSN 1578-9322

aikortxori@aikor.com
944 523 447 · 688 864 135 · 747 406 561

aikor aldizkariak ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen edota
iritzien erantzukizunik.

CC BY-SA 3.0
Aitortu - Partekatu Berdin 3.0 Moldatu gabea



DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIZKARIA



SUMARIOA

- 4 Iritzia
- 5 Berri laburrak
- 11 Sorlekua
"Zigzag"
- 12 Gurean izan da
Victor Landa
- 14 **Larrabetzuko Etxafleruek**
- 16 Gaztea eta
Naia Diez
- 18 Txoriberri
- 20 **Amaia Carpio**
- 24 **Valentziako hondamendia**
- 28 **Euskararen Astea**
- 30 EMAUS
- 31 Teknologia
Pribatasuna arriskuan
- 32 Menditik Patxadaz
Durangalde historikotik
- 34 Herbarioa
Huntza
- 36 Sukaldaritzza
- 37 Denbora-pasak
- 38 Abenduko agenda



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

IRITZIA

Hausnarrean ibiltzen naiz sarri

Gizalege, gizabide edo kortesia gurasoegandik ikasitako irakasgaia da printzipioz, ondoren eskolan, eta biziaren ondorioz ikasten doguna ere bada. Azken aldian hori galtzen gabiltzako lakoan nago.

Lehen, herriko dendan, anbulategian edo ile-apaindegian sartu eta lehengo-lehengo “egun on” esaten zan. Mendian ere, lehen mundu guztiak alkar agurtzen

eban; orain, albotik pasatzean, keinurik be ez dabe egiten askok. Ez dago inon idatzita, baina zer ederragorik ondokoari diosala egitea baino? Baina jada, agurtzeko ohitura galtzen ari da.

Badago ardura deustan beste irudi bat, pentsa egizu trenez zoazela, zein da panorama? Norbera bere munduan sartuta doala ikusiko dozu, asagoko lagun ikustezi-nagaz berbetan, edo jolasten, edo irakur-

BELEN GANA
Euskara irakasle erretiratua



ten.. Norberak gura dauena, ederto, baina ondoagaz gero eta komunikazio eskasagoa dogu; lagun urkoagaz ahaztuta gabiltza.

Bestetik, badago irudi tristeagorik jate-txe batean mahai baten inguruan dagoen familia edo lagun kuadrillaren partaide gehienak bere telefonoari adi dagoena baino, alkarregaz berbaz ibili beharrean?

Altxa dagigun burua eta alkar begiratu eta errespetatu.

Alzheimerraren globalizazioa

Oso modu sinplean azaltzeko, alzheimerra memoriagaz arazoak sortzen dituen demenzia mota bat da. Sintomarik ezagunena memoriaren galera da. Gaixotasun hau adin batetik aurrera gertatzen dala uste dogu, baina ni ez nago horregaz guztiz ados. Memoria galtzea edo ikasi barria ez gogoratzea adin guztietako pertsonengan emoten da. Udazken honetan hainbat gertakari izan dira albistegi guztien buru; esate baterako, Gazan gertatzen ari dan sarraskia, Ipar Koreako soldaduak Ukrainan, Valentziako GOIDia (erderazko DANA) edo Donald Trump barrero AEBn hauteskunde irabazle izatea.

Albiste batek beste bat amatatzeko indarra dauka, eta guk, albiste kontsumitzaileok, holan aurreko albistea ahaztu egiten dogu. Arropen moda urte batetik

bestera aldatzen dan bezala, iaz modan egoana, aurtan zahar lotu da. Bada, gertakari hauekaz bardin. Valentziako uriolen ostean, Gaza ahaztu egin dogu, Ukraina ez da existitzen eta Trump onartu egin dogu. Laster, Valentzia ere, alzheimerraren global horren erruz gogoratu ere ez. Horregaitik dinot gogoratzeko gabezia honek adinik ez daukala, globala dala.

Onartu behar dot artikulu hau idazteko ordenadoreko bilatzailean “gaur egungo gudak” idatzi dodala nire memoria gabezia gainditzeko. Hauek dira egunean dagozan maila handiko gudak: Burkina Faso, Somalia, Sudan, Yemen, Myanmar, Nigeria eta Siria. Gudak hildako kopuruen arabera mailakatzen dira; hori nazioarteko erakunde batek dino, guden ankerkeria neurtu barik. Nire memoria laburrak aipatutako guztiak ahaztuta eduki dauz.

ASIER ORUETXEBARRIA
Irakaslea



Epe laburrean bizi gara. Zenbatetan entzun dogu herri honetan etorkizuna eraikitzeko iragana ezagutu behar dogula? Baina iragana momentuan ezabatzen dogu. Gaia ulertu ez dauan ikaslearen antzera, akats berberak behin eta barrero errepikatzen doguz eta, zoritxarrez, alzheimerraren antzera, ez dago honetarako sendagairik.

2020ko pandemiaren ostean, gizaki hobeak izango ginela sarri entzuten zan, anaitasuna eta elkartasuna sendotuko zala. Hamaiketako mezatan gengozala emoten eban. Baina lau urte ostean, gizakiok lehen bezain geurekoiak gara; beharbada, geurekoiagoak. Egunkarietako lehen orrialdean ez dagoena ez da existitzen. Holan jarraituz gero, argi daukat gizakia desagertu egingo dala.

OKERRAK ZUZENDUZ

Aurreko alean *Begire dau Aralarko dama* iritzi-artikulua idatzi zuen Einer Larrabeitik. Hori kazetaria eta irakaslea dela adierazi genuen, baina ogibidea ez da zuzena; Larrabeiti psikologoa da.

BERRI LABURRAK



Violeta Perez derioztarra, brontze Errumanian

Violeta Perez Derioko Doyan klubeko taekwondolariak brontzeko medaila lortu du Errumaniako Openean. Perezek Eslovakiako taekwondolariari irabazi zion, baina finalurrekoan galdu zuen Turkiaren aurka. Hala ere, lehen medaila eskuratu du mailarik handieneko Open G1ean, eta poz-pozik itzuli da Errumaniatik. “Nire burua sendo ikusi nuen, psikologikoki zein fisikoki, eta gehien gozatu ditudan txapelketako bat izan da. Nolanahi ere, lanean jarraitu behar dugu, ilusio handia baitugu etorriko diren erronkei aurre egiteko”.

Izan ere, Perez gogoz prestatu du bere burua Errumaniako Openerako, eta entrenamendu fisikoaz gainera, arlo psikologikoa ere landu du kirol-psikologo batekin eta bere entrenatzailearekin. “Lehiaketaren aurreko egunean, lagundu behar izan nion entrenatzaileari, eta ezin izan nuen arreta osoa nire buruarengan ipini. Hala ere, asko gozatu nuen ki-deekin eta asko ikasi nuen entrenatzaile moduan. Gainera, horrek lagundu zidan hurrengo egunean, nire lehiaketari dago-kionez, ikuspuntu argiagoak izaten. Le-

hiaketa egunean, lan psikologikoa landu nuen lan fisikoa baino lehen, eta horrek lagundu zidan lehiaketan sortu ziren tentsio-uneei aurre egiten”.

Abenduaren hasieran Espainiako Klubeko Txapelketan hartuko du parte, eta adierazi digu klubeko kirolariak lanean dabiltzala podiumeko lehen postuan egoteko. Ondoren, Euskadiko Txapelketan parte hartuko du, eta otsailean, Espainiako Autonomia Txapelketan. “Gogora ekarri behar da mundiala izango dela, eta lan egingo dugu bertan ere egon ahal izateko”.

Perezekin batera, Errumaniako Openera joan ziren Doyan klubeko Claudia Tamar-go, Irene Vallo, Naiara Arrola eta Enara Garrido. Baita Iñigo Galan entrenatzailea ere.

Larrabetzuko udaletxea eraberritzeko lanak hasi dira

Eraberritze-lanak azaroaren hasieran hasi ziren, eta espero da datorren urteko amaierarako amaituta egotea. Larrabetzuko udaletxearen barrualdea nahiko zahar zegoen, eta Amaia Lekue alkatearen esanetan, hura erabat berrituko da, eta zerbitzuak ere birkokatuko dira. Lanek 1.800.000 euro balio dituzte, eta udalak milioi bat euroko dirulaguntza jaso du erai-kin publikoak birgaitzeko sustapen programa europarretik. Era berean, 600.000 euroko mailegua eskatu du, eta gainerakoa udaleko diru-kutxatik ipini du.

Four Friends taldea Oxangoitin

Azken Barikuak kontzertu-sailaren baitan, Four Friends musika-taldeak kontzertua egingo da azaroaren 29an, Lezamako Oxangoiti tabernan. Kontzertua 20:30ean hasiko da. Bilboko taldeak hainbat estilo jorratzen ditu, hala nola jazz, bluesa, popa eta rocka. Euren abestiak izateaz gainera, beste talde batzuen abestien bertsioak ere egiten dituzte modu instrumentalean.

BASALBEITIKO TXAKOLINA

Bizkaiko Txakolina
Denominación de origen

Bizkaiko Txakolina

Goitioltza ezua, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

POLITEKNIKA TXORIERRI

Emari izena: politeknikatxorierrri.eus

HEGAN
egiteko aukerak

Formación Profesional y Bachillerato
Lanbide Heziketa eta Batxilergoa

HETEL

Elkartasun-kanpaina Lezaman

Lezama Saretzen elkarteak eta Lezamako Udalak sustatuta, elkartasun-kanpaina ipini da martxan udalerrian. Abenduaren 16ra arte, txartelak erosi ahalko dira bost euroan, herriko dendetan eta ostalaritza-establezimenduetan, eta batzen den dirua bi egitasmotara bideratuko da: alde batetik, beharrezana duten herriko familiei laguntzera; eta bestetik, DANAK kaltetutako valentziarrei laguntzera. Gainera, hiru sari zozkatuko dira kanpainan parte hartzen duten herri-tarren artean: Gabonetako bi saski eta Athleticeko jokalariek sinatutako kamiseta bat. Zozketa abenduaren 19an egingo da udal-liburutegian.



Munduko sukaldaririk onenatarikoa da Iñaki Bolumburu derioztarra

The Best Chef sariak munduko sukaldaririk onenen bikaintasuna eta eragin globala saritzen dituzte, eta Derioko Iñaki Bolumburu sukaldariaren lana aintzat hartu dute aurtengo edizioan. Aizto-sistema erabilia, antolatzailerik nabarmendu dituzte sukaldariak, eta gazte derioztarrari aizto bat eman diote. “Oso pozik nago, noski! Zerrenda berean munduko sukaldaririk onenekin egotea oso polita da”, adierazi digu. Bolumburu Amsterdameko Contrast jatetxearen sukaldaria da. Hala ere, azaldu duenez, egitasmo hori itxiko dute eta laster beste proiektu berri bati ekingo diote.

BERRI LABURRAK



Giro ezin hobea Txorierri Egunean

Azaroaren 16an, Txorierri Eguna-ren bigarren edizioa ospatu zen Txorierriko Baserri Antzokian, Derion. Goiz-goizetik, tokiko ekoizleen eta artisauen azoka atondu zen, eta bertan izan ziren Txibirita Mundi, Zizgorri, Hemen eta Orain, Museti Jositegia, Bitxik Kool, Eskulore, Kaktusero eta Iñaki Lekerika. Ogia, barazkiak, loreak, taloa eta txakolina ere egon ziren goi-

zean zehar. Horrezaz gainera, euskal dantzen alardea egin zen Lainomendi (Derio), Goi Alde (Erandio), Hiru Bat (Zamudio) eta Gurutze (Lezama) dantza-taldeen eskutik. Era berean, Sondikako Dana taldeak gimnasia erritmikoaren erakustaldia egin zuen, eta umeentzako perkusio-tailerrak egon ziren Moonrock musika-zentroak gidatuta.

Itálicako Krosean izan da Beste Bira

Beste Bira Loiu klubeko 20 urtez azpiko kategoriako atletak lehen aldiz parte hartu dute Espainiako Kluben Kros Txapelketan, Sevillan, eta klubeko ordezkarien esanetan, “arrakasta historikoa izan da”. Itálicako Cross moduan ere ezaguna, proba azaroaren 17an izan zen, eta Txorierriko atletak 28. postuan sailkatu ziren. Taldea hauek osatu zuten: Alain Sanchoyertok, Martín Corderok, Iuri Ortiz de Andak, Izei Incerak eta Ander Puenteseak. Txapelketan 40 klub inguru ibili ziren, eta 250 atleta.

Beste Birako atletak lau kilometro egin zituzten Santiponceko zirkuitutik, eta horretan Estatuko atletarik onenen kontra lehiatu ziren. Sailkapenik onena Alain Sanchoyertok lortu zuen: 98. pos-

tua. “Taldeak historia egin du klubean zein Txorierriko atletismoan, lehen izan taldea baita Estatuko taldekako txapelketa baterako sailkatzen”.

BIZKAIKO TXAPELKETA

Jakinarazi dutenez, Beste Bira klubak buru-belarri dabil Bizkaiko Kros Txapelketa prestatzen. Txapelketa abenduaren 1ean egingo da Zamudion. “Bidekoetxe parkean, hain zuzen, lurraldeko kros-lehiaketarik inportanteena izango da”. Txapelketa Loiuo kluba antolatzen dabil Zamudioko Udalarekin lankidetzan. Egun horretan atletarik onenek izango dute hitzordua Zamudion, 16 urtez azpiko kategoriatik kategoriatik absolutura arte.

BERRI LABURRAK



JOSU URIBE

Tejadok irabazi zuen Zamudioko Slaloma

Azaroaren 17an, Zamudioko Slalomaren 16. edizioa egin zen, eta hori Asier Tejadok irabazi zuen bigarren lasterketa ofizialean lortutako denborari esker. Aritz Zarate bigarrena izan zen irabazlearengandik hiru segundora, eta Aitor

Llarena junior, hirugarrena. Gainera, Llarena juniorrik onena eta 2. mailako onena ere izan zen. Bestalde, 4. Mailako onena ere izan zen Tejado, eta Eneko Correiak eta Mario Garciak, 1. maila eta 3. maila irabazi zuten hurrenez hurren.

Ostatu-emaileek 3.000 euroko ekarpena egin diote Lezamako Udalari

Lezamako Udalak gizarte-sareetan jakinarazi duenez, 3.000 euroko diru-ekarpena jaso dute Bizkaiko Done Jakue Bideko Ostatu-emaile Boluntarioen Elkartetik. Diru-ekarpena larrialdietako gizarte-laguntzetara bideratuko da. Bestalde, azaldutakoaren arabera, ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean, 1.350 erromesek pasatu dute gaua aterpean. Erromes gehienak gizonak izan dira, 751 hain zuzen, eta erromes-kopuru handiena abuztuan jaso da: 418 lagun. Adinari dagokionez, erromes gehienak 51 urtetik 60 urtera bitartekoak izan dira: 247. Beste aldetik, 510 erromes Estatutako hainbat herritatik etorri dira, batez ere Kataluniatik (144), Madriletik (71) eta Valentziatik (62). Atzerriko erromesen artean gehienbat frantsesak (209), alemanak (123) eta italiarrak (108) egon dira.

Errege-eguneko Menua

PARTEKATZEKO

BAKILAO-ENTZALADA EPELA, PIPER GORRIKIN, TENPURAN EGINDAKO PIPERMINEKIN ETA LUNPOKO KABIAR-OZPINAREKIN

URDAIAZPIKO IBERIKOZ EGINDAKO ETXKO KROKETAK

ITSASKIZ BETETAKO PIPERRAK TXIPIROI-SALTSAREKIN

BIGARREN PLATERA (AUKERATZEKO)

LEGATZA, BEGIHANDI- ETA TXIRLA-MARMITAKO GAINEAN

EDO

MASAIL- ETA FOIE-HOSTOPILA, ONDDO SALTEATUEKIN ETA PATATA-PUREAREKIN

POSTREAK

PANTXINETA, KREMA INGELES ERARA ETA BAINILLA-IZOZKIA

Urbe

56€
BEZa barne



Zarandoa 5 (Derio) -Hotel holiday inn express



Nitugu buzoia ipini du Gaztelumendin Arroetak

Lezamako Gailur mendi-taldeak eskatuta eta Mendiko Federazioak eta Larrabetzuko Udalak baimenduta, 2021ean buzoia ipini zuten Gaztelumendi mendian. Hala ere, Arroeta Zamudioko mendi-taldeak jakinarazi duenez, 2024ko otsailean baten batek buzoia kendu, eta eraman zuen. Lezamako mendi-taldea desagertu da, eta horregatik, Arroetak hartu du buzoia berriro ipintzeko ardura. Buzoiari Nitugu ipini diote izena, eta urrian jarri zuten. Urrian ere martxa egin zen Zamudiotik Larrabetzura, buzoia inauguratzeko. Martxan Arroetako kideek eta buzoia egin dutenek hartu zuten parte. “Jakina denez, Bilboko Burdin Hesiko parte da Gaztelumendi, eta gailurrean gutxienez hormigoizko bunker bat dago. Gainera, han bertan gurutze frankista egon zen, 36ko gerrako irabazleen omenez”, azaldu dute Arroetako kideek. “Buzoiaren diseinuak ezaugarri horiek hartu behar zituen kontuan, eta gaur egungo pentsaera dikotomikoak gaintitu. Hori dela eta, Nitugu ipini diogu izen: ni, nire ikuspuntua; tu, tu visión; eta gu, gure ikuspuntu berria”.

BERRI LABURRAK



JUANJO ORTIZ

San Martin eta Euskal Azoka

Azaroaren 11n, San Martin ospatu zuten Sondikan, eta, besteak beste, kalejira eta aureskua izan ziren. Azaroaren 17an, bestalde, Euskal Azoka ospatu zuten. Nekazaritzako produktuez

gainera, artisauen lanak ere izan ziren ikusgai eta erosgai, hala nola, arropa, artilez egindako lanak, beira-lanak eta paperezko apaingarriak. Horrezaz gainera, kalejirak eta tailerrak egin ziren.

OHIKO
LEKUETAN
SALGAI

Zorte on!

98660

BERRI LABURRAK



GazteForo ekimenak Derioko gazteen parte-hartzea sustatu nahi du

Derioko Udalak jakinarazi duenez, GazteForo ekimena ipini du martxan, gazteek udalerriko bizitzan parte-hartze aktiboa izan dezaten. Gazte-kontseiluaren bidez, 14 urtetik 18 urtera bitarteko gazteek udalerrinari buruzko ideiak eta iritziak adierazi ahaliko dituzte, eta euren intereseko egitasmoak garatzen lagunduko dute, udalarekin lankidetzan ibiltzen diren bitartean.

Azaldutakoaren arabera, Derioko 30 familiak gutun bana jaso dute, eta bertan jakinarazi zaie euren seme-alabak aukeratu dituztela GazteForoan parte hartzeko. "Parte-hartzaileak zozketa baten bidez aukeratu dira, eta tokiko gazteen ausazko ordezkari garena bermatu da", azaldu du udalak. "Hautatutakoek hainbat saiotan parte hartuko dute, eta, horietan, kontseiluaren funtzionamendua eta egingo diren zereginak zehaztuko dituzte, hezitzaile desberdinen eta udal teknikarien laguntzarekin batera". Gainera, udalak izena emateko formulario digital bat prestatu zuen, nahiz eta gutuna jaso ez, nahi zuten gazteek Gazte Foroan izena eman zezaten.

GazteForoaren hasierako saioak Kultur Birikan egiten dabilta. "Proiektu hau urrats garrantzitsua da Derioko Udalak belaunaldi berriak tokiko erabakietan inplikatzeko eta txikitatik herritartasun aktiboa sustatzeko duen konpromisoan" adierazi du Esther Apraiz alkateak. "Ekimen berri bat da, bere garaian zazpi urtetik gorakoentzat aurrekontu parte-hartzaile prozesuetan parte hartzeko aukera eskaini genuen modukoa. Helburua da gaztetatik herriaren ahotsa dutela jakinaraztea, beren inplikazioa bilatzea, eta sentimendu horrek udal jardueretan oihartzuna izatea. Konpromiso hori gaztetatik piztea lortzen badugu, guztion artean eraikitako herria izango dugu".

Zamudioko lorezainek hitzarmen berria lortu dute

ELA sindikatuak jakinarazi duenez, Zamudioko lorezainek hitzarmen berria izateko akordioa lortu da, bertako udalak azpikontrataturako ENVISER enpresarekin negoziazioak hasi eta urte erdira. Lan-baldintzak Sondikako lorezainen lan-baldintzekin parekatzea erdietsi da, eta soldata-igoerak ere lortu dituzte erosalmenaren berreskuratzeko. Zamudioko lorezainak 168 egunean izan dira greban, eta urriaren 25ean hasi ziren lanean.

Langileek 2022tik zuten hitzarmena iraungita, eta hori berritzeko aukera izango dute. Hala, soldatei dagokienez, % 9,76 eta % 11,63 eguneratzea lortu dute 2023rako eta 2024rako, eta soldaten eguneratzeak KPIa bermatuko du 2025erako, baita % 3ko igoera, KPI txikiagoa bada. Era berean, lan-baldintzak Sondikako lorezainek dituztenekin parekatu dira, eta hortaz, "bi aldarrikapen nagusiak lortu dituzte".



"Irakasteko eta ikasteko prozesu bereziak eta proiektuetan oinarritutako metodologia da Mondragon Unibertsitate gehien gustatzen zaidana"

Mario Barañano Garcia(Sopela)
Gradua: LEINN, 2. maila



Zergatik aukeratu zenuen LEINN (Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntza) gradua ikastea?

Nire kasuan, bi aukera nituen: LEINN eta Ingeniaritza Informatikoa. Aukeratzeko unean, konturatu nintzen nire kreatibitatea garatzeko eta etorkizunerako lidergo-gaitasuna hobetzeko aukera onena LEINN zela. Beraz, LEINN gradua aukeratzearabaki nuen.

Nola ari da izaten LEINNen bizitako esperientzia?

Esperientzia oso polita izaten ari da, baina baita gogorra ere. Talde-lanean lidergo-estilo desberdinak ikasten ari gara, eta arazoak sortzen direnean modu egokian kudeatzen ikasi behar dugu.

Zer da gehien gustatzen zaizuna Mondragon Unibertsitate?

Irakasteko eta ikasteko prozesu bereziak eta proiektuetan oinarritutako metodologia, besteak beste.

Lehen egunetik enpresa bat sortu duzue LEINN graduan; nola egiten da hori?

LEINN graduko lehen egunetik enpresa sortzen dugu taldean, urratsez urrats prozesu legal eta operatibo guztietatik igaroz. Hasieran, proiektuaren oinarriak eta helburuak definitzen ditugu; ondoren, dokumentuak prestatu eta, beharrezkoa denean, aholkularien laguntza jasotzen dugu.

Prozesua elkarrekin ikasten dugun ibilbide inpiratzaile bihurtzen da, ekintzaitzaren muinera hurbiltzen gaituelako.

Nola da taldean lan egitea?

Nire ustez, dibertigarria da, eta lehen urtean erronka handiak dakartza ere bai. Hasierako momentuetan elkarriketa asertiboak izatea ez da beti erraza, eta horrek informazioa partekatzeko moduetan eragina izan dezake.

Ze proiektutan ari zarete lanean LEINNen barruan?

Nire kasuan, hiru proiektutan nabil lanean, beti ere, lantaldean.

Zer nolokoa izan da atzerriko esperientzia? Non izan zarete?

Iaz Berlinen izan ginen, eta talde osoarentzat esperientzia bikaina izan zen. Aurten, berriz, New Yorkera goaz, eta aukera izango dugu bertako ekosistemarekin hartu-emanetan aritzeko.

Etorkizunari begira, zeintzuk dira zure asmoak?

Gustatuko litzaidake enpresa batean barne-ekintzaitzeta sustatzea eta, gaztea naizenez, eskualdeko CEO izateko aukera izatea. Era berean, motorsport arloan talentu-ehizan aritzea interesatzen zait, edo jazarpen-arazoak dituzten pertsonen laguntzeko zerbitzu bat sortzea.

BERRI LABURRAK



Hamargarren urteurrena ospatu du Bizkargik

Bizkargi Larrabetzuko dantza-elkar-teak 10 urte bete ditu, eta urteurrena ospa-tzeko, ekintza-sorta zabala antolatu zuten azaroaren bigarren astebururako. Ekitaldien artean izan ziren arropa- eta argazki-erakusketa, Taberna Ibiltariaren musika-saioa, dantza-agerraldia, bazka-ria, erromeria eta Tio Teronen Semeak taldearen dantza-ikuskizuna.

Dantza-elkarteko kideak pozik azaldu dira ospakizun-ekintzekin. “Adin guz-tientzako egitaraua antolatu dugu, eta jen-dearen erantzuna oso ona izan da, ekital-dietan lagun asko batu dira eta. Eguraldia

ere izan dugu lagun; beraz, dena bikain. Eskerrak eman nahi dizkiegu laguntzen ibili diren elkarte zein norbanako guztiei, baita ekitaldietan parte hartu dutenei”.

Elkartearen helburuetariko bat zen 10 urtean taldetik pasatu diren dantzariak dantzan jartzea, eta helburua bete dute. “Dantzari ohi gehienak izan dira ekital-dian. Entseguak egin dira eta horietan jende asko batu da. Oso ekitaldi polita izan da, eta denak ibili dira pozik eta giro onean. Dantzari ohiak berriro ere gurega-natu ditugu, eta plazara irten dira”.

Datozen urteetarako erronkak argi

dituzte. “Beste hainbeste urtez dantzan jarraitzea espero dugu, herritik eta he-rrirako ekitaldiak gauzatu ahal izatea, euskara eta euskal kultura ezagutaraztea, gozatzea... Hau da, erronkak orain arteko berberak dira. Orain arte bezala jarraitzearekin nahikoa dugu”. Etorkizuna ere optimismoz ikusten dute. “Umeekin egiten dugu lan, eta institutura joaten direnen artean beherakada egon arren, guk jarraitzen dugu eskola ematen. Hori ziklikoa izaten da: batzuetan jende gehi-go dago, eta beste batzuetan, gutxiago. Baina, hala ere, etorkizuna hortxe dago”.

Sondikako Udalak 30.000 euro ipini ditu merkataritza eta ostalaritza sustatzeko

Sondikako Udalak “Utzi zure aztarna” kanpaina ipini du martxan, herriko merkataritzan eta ostalaritzan kontsumitzea sustatzeko. Udalak 30.000 euroko inbertsioa egin du, eta 3.600 bonu kaleratu ditu: 25 euroko 2.400 bonu eta 10 euroko 1.200 bonu. Herriko ostalaritzari eta merkataritzari laguntzeaz gainera, herritarrek deskontuak izango dituzte erosketetan.

Bi bonu-mota kaleratu dira: batek 5 euroko prezioa du, baina 10 euroko erosketa-balioa; besteak 15 euroko prezioa du, baina 25 euroko balioa. “Aldea udalak hartu du bere gain”, adierazi dute. Bonuak herriko 25 merkataritza- eta ostalaritza-establezimendutan erabili ahalko dira. Establezimendu horiek identifikazio-pegatina bat dute, herritarrek errazago identifikatu ditzaten.

Naiia Landa Sondikako alkateak azpimarratu duenez, “ekimen honetan parte hartzea da herria egitea, gure aztarna Sondikan uztea eta gure kaleei bizitza ematen dieten dendak sendotzea; gure jendeari laguntzea”. Merkataritza txikia babesteko eta hurbileko kontsumoa sustatzeko, Sondikako Udalak bultzatutako ekintzen baitan dago kanpaina. “Horrela, tokiko ekonomia eta herritarren ongizatea sendotzen dira”.

SORLEKUA



"Zigzag"

Egunaren azken eguzki-izpiak sigi-saga islatzen dira itsasoan, desagertu baino lehen. Momentu horretan hain zuzen oinarritu dira Leire eta Alaitz, Bitxik Kool osatzen duten bi lagunak, ondoko argazkian dauden belarritakoak sortzeko. "Pigmentatutako erretxinaz eginda daude, eta dirdirak eta krakeladura-efektua mika-hautsen bitartez lortzen dira. Ondoren, aleak konbinatzen dira, eta belarrietan ipintzeko bernoak itsastan zaizkie".

Apaingarriak egiten dituen lagunen arteko marka txikia da Bitxik Kool. Leire eta Alaitz ibiltzen dira azokaz azoka euren artelanak plazaratzen, baina ez dute aipatu gabe utzi nahi inguruan duten laguntza-sarea, "azoketara joateko edo modelo-lana egiteko, proiektua bera aberasten duena".



Leire eta Alaitz
 @bitxikkool

Enaitz
 TABERNA

Ogitartekoak
 Anoak

640 26 84 15
 94 455 42 15
 Garaioltza, 74
 Lezama

Sondigarbi
 GARBITEGIA

ITURRIGANE, 2
 635584941

EGUNERO
 8:00-22:00

KURREGOITI
 JATETXEA

Lauroeta etorbidea, 27
 48180 Lolu-Bizkaia
 T-Faxo: 94 453 24 40
 restauranteaurregoiti.com

GUREAN IZAN DA

“Aurretiazko borondateen dokumentua egitea oparirik onena da gure senideentzat”

VICTOR LANDA
ABDn aditua



ITXASO MARINA

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak antolatuta, azaroan aurretiazko borondateen dokumentuari buruzko hitzaldia izan da Derion. Hitzaldia Victor Landa familia-mediku erretiratuak egin zuen. Landa aditua da zaintza aringarrietan eta doluan, eta bederatzi urte daramatza hitzaldiak eta tailerrak egiten, dokumentua zer den azaltzeko eta herritarrei hura egiten laguntzeko.

Zer da aurretiazko borondateen dokumentua?

Hainbat arrazoi tartean, baliteke gure bizitzaren amaieran erabakiak hartzeko gaitasuna modu iraunkorrean galtzea. Egoera horri aurrea hartu ahal diogu, eta dokumentuan adierazi ahal dugu zer nahi dugun eta zer ez, gure ordeztuak beste batek erabakiak hartu behar ez izateko.

Adibidez?

Idatziz esan dezakegu zer nahi ez dugun: bihotza geldituz gero, gu ez erreanimatzea; zunda nasogastrikoa ez ipintzea; kimioterapia edo erradioterapia ez ematea; miaketa-probarik ez

egitea... Eta zer nahi dugun ere esan dezakegu: zaintza aringarrien mota, lasaigarria ematea, eutanasia, autopsia egitea nahi dugun... Legez guztiok izan gintezke organo-emaileak, baina dokumentuan adierazi ahal dugu organoak eman nahi ditugun, edo ez. Era berean, ordezkari bat edo batzuk izendatu ahal ditugu, gure nahiak bete daitezela ziurtatu dezaten.

Derrigorrean bete behar da dokumentuan adierazitakoa?

Bai, lege-dokumentua da, eta osasun-lan-gileok bete behar dugu, nahiz eta familia ados egon ez. Are gehiago, legeak ezarri moduan, pazienteak erabakitze gaita-

sunak modu iraunkorrean galdu badu, medikuak derrigorrean kontsultatu behar du bere historia klinikoa, dokumentua eginda duen edo ez jakiteko. Bertan jasotako jarraibideak bete behar ditu, eta, esaterako, eutanasia eskatu bada eta bera objektorea bada, kasua beste mediku bati eman behar dio.

Erabakitze gaitasuna modu iraunkorrean galtzeaz zabilta momentu guztian. Dokumentua aldatu daiteke? Baliogabetu?

Erabakiak hartzeko gauza garen bitartean, dokumentua ez da baliagarria. Gainera, edozein momentutan baliogabetu dezakegu, aldatu edo ordezkari

tu. Bestalde, argi utzi behar da ez dela inoiz larrialdi-zerbitzuan erabiltzen. Zergatik? Bada, bakarrik baliagarria delako egoera itzulezin batean gaudenean, eta denbora behar da halako egoeran gauden edo ez ikusteko. Beraz, larrialdi-zerbitzura, adibidez, istripu baten ondorioz eramaten bagaituzte, osasun-langileek ohiko laguntza medikoa emango digute.

Nork egin dezake?

Hamazortzi urtetik gorako edozein pertsonak egin dezake, legez ezgaitutzat jo ez badute eta derrigortuta ez badago. Desgaitasuna duten pertsonak ere egin dezakete, beti ere erabakitzeke gaitasuna badute. Adibidez, sinatzeko arazorik badute, azterna digitala erabili daiteke. Edozein kasutan, gomendagarria da aditu batengana jotzea, izan ere, baliteke ondo ulertzen ez ditugun gauzei buruzko erabakiak hartu behar izatea. Pertsona hori izan daiteke mediku bat edo erizain bat; hala ere, osasun-etxe guztiek ez dute zerbitzu hau eskaintzen. Horregatik gabilta udalekin lankidetzan.

“Erabakiak hartzeko gauza garen bitartean, dokumentua ez da baliagarria”

Nola edo non eskuratu daiteke dokumentuaren ereduak?

Dokumentuak 22 urteko indarraldia du, eta eskuz idatzitako papera izan daiteke, edo gaur egun dauden ereduak. Autonomia-erkidego bakoitzak badu bere ereduak, eta heriotza duinaren aldeko elkarteek ere euren ereduak. Guk, zehazki, interesgarriena iruditu zaiguna hartu dugu batetik eta bestetik, eta taillerretan egindako talde-hausnarketak ere hartu ditugu kontuan, gure dokumentua osatzeko orduan.

Nola legezztatzen da?

Notario baten aurrean, edo Aurretiazko Borondateen Erregistroko funtzionario

baten aurrean legezztatzen da. Mediku-ikuskari batzuen sinadura eta notarioen sinadura balio berekoak dira, eta iaiztik aurrera medikuak eta erizainak ere gaitu daitezke, nahi baldin badute. Beste aukera bat da dokumentua hiru lekukorekin egitea.

Zergatik aholkatzen duzu aurretiazko borondateen dokumentua egitea?

Dolua oso zaugarritasun handiko momentua da, eta familia oso sentikorra da gertatzen den guztiarekiko. Nire bizitzaren amaiera prestatzen badut, adiskidetzarako eta agur esateko ingurua ahalbidetuko dut, eta senideek, ziur asko, hobeto pasatuko dute dolua. Prestatzen ez badut, aitzitik, baliteke senideek ez dagozkien erabakiak hartu behar izatea, eta horrek zalantzak edota alhadurak ekarri diezazkieke, baita gatazkak edo desadostasunak ere. Ondorioz, dolu txarragoa izan dezakete. Nire ustez, aurretiazko borondateen dokumentua egitea oparirik onena da gure senideentzat, erantzukizunetatik eta erabakietatik salbuespen ditugulako.

Saioak

Victor Landak duela 11 urte hartu zuen erretiroa, Basaurin familia-mediku moduan 30 urte eman ondoren. Hala ere, duela bederatzi urte Osakidetzak mediku erretiratuei egindako deiarri erantzun zion, eta harrezkero boluntario dabil, aurretiazko borondateen dokumentua herritarrei hurbiltzen. Jesus Angel Garciarekin eta Julian Bajorekin lanean dabil Landa; horiek ere mediku jubilatua dira.

“Besteak beste, udalekin gabilta elkarlanean, eta kultura-etxeetan ere

egin ditugu hitzaldiak, zahar-etxeetan... Dokumentua modu indibidualean egin daiteke, baina guk nahiago dugu taldeka egin, gehienez 15 laguneko taldeetan. Aberasgarriagoa da horrela, kezak eta esperientziak partekatzen direlako, eta zalantzak argitu. Horrek guztiak eragina du dokumentuan: gurea zabalik dago, eta aldaketak egin daitezke pertsona bakoitzaren arabera”.

Azaldutakoaren arabera, bi saio egingo dituzte. “Lehenengo saioan azaltzen dugu dokumentua zer den, eta atalka

irakurtzen dugu zalantzak argitzeko. Bi aste epea ematen dugu ondo pentsatzeko eta dokumentua betetzeko, baita ordezkaria topatzeko ere. Gero berriro batzen gara egindakoa hausnartzeko”. Txorierrin ere bi saio egingo dira, eta horiek zuzenduko dituzte Jesus Garcia Sondikako mediku ohiak eta Fernando Perez Zamudioko mediku ohiak. Lehen saioa azaroaren 26an egingo da, eta bigarrena, abenduaren 10ean. Informazioa eskuratzeko eta izena emateko, 747 428 849 telefono-zenbakira deitu daiteke.





ANER MENTXAKA



LARRABETZUKO ETXAFLERUEK

Su hartu du bolborak

Akarbaltz Gauean estreinakoz irten ziren plazara Larrabetzuko Etxafleruak. Lekittoko Deabruak lagunduta, txinpartez eta sugarez bete zuten plaza, eta ikuskizun pirotekniko zoragarria eskaini zieten bertan bildutako herritarrei. Taldea irailean aurkeztu zen jendaurrean, eta azaldu zuten, euren asmoa da konpartsa bat osatzea, bere baitan ume, gazte zein helduak hartzeko eta herriko ekitaldiak girotzeko. Bolborari su eman diote jada.



GAZTEA ETA

“Gero eta emakume gehiago ikusten ditut boxeoaan”

NAIA DIEZ CALLADO
Boxeolaria

Zamudioko Boxeo Taldeak antolatuta, azaroaren 16an boxeo-borrokaldiak izan ziren udal-kiroldegian, emakumeen kontrako indarkeria gaitzesteko. Boxeolarien artean izan zen zamudioztarra, herriko boxeo-taldeko kidea dena. Gazteak 16 urte ditu eta junior kategorian lehiatzen da. Kirol-ibilbidea profesional moduan egitea gustatuko litzaioke.



T ITXASO MARINA ANER MENTXAKA

Zer moduz joan zen boxeo-emanaldia? Pozik?

Borroka irabazi nuen; beraz, oso ondo. Hasieran urduri ibili nintzen, jende asko zegoelako, baina asko gustatu zitzaidan esperientzia. Gainera, lehen aldian izan da Zamudion lehiatzen naizela, eta jende asko ibili zen ni animatzen.

Zer pentsatzen duzu halako ekintzak antolatzeaz buruz?

Oso ondo deritzot. Izan ere, gizon boxeolari gehiago dauden ustea dago, baina nik gero eta emakume gehiago ikusten ditut kirol honetan. Gainera, halako ekintzek aukera ematen digute emakumeoi, gizonen moduan, boxeoa praktikatu ahal izateko.

Noiz hasi zinen boxeoa?

Hamabi urte nituela. Nebak boxeoa egiten zuen, baina niri, egia esan, ez zidan arretarik ematen. Gauza da ni beti izan naizela oso kirolaria, baina momentu batean kirola egiteari utzi nion. Orduan, nebak boxeoa egiten zuenez, ni ere saiatzera animatu nintzen, eta gustatu egin zitzaidan. Aurten hasi naiz lehian sartzen.

Zerk erakarri zintuen?

Klubeko kide batzuk lehiaketetan ibiltzen zirela ikusi nuen, eta ilusio handia egiten zidaten euren garaipenek. Nik ere borrokaldiak irabazi nahi nituen. Beste alde batetik, boxeoa oso ondo dago defentsa ikasteko eta lagungarri da estre-

sa-eta kanporatzeko. Gainera, sasoiaren egoten laguntzen dit.

Nolako entrenamenduak egiten dituzu?

Astelehenetik barikura entrenatzen dut, ordu bete eta erdi, eta korrika ere egiten behar izaten dut lehiaketako pisuari –52 kilo– eusteko. Era berean, korrika egitea inportantea da sasoi onean egoteko eta borrokaldietan ez nekatzeko. Entrenamenduei dagokienez, hasieran elkarrekin egiten ditugu beroketak, eta gero binaka ipintzen gara. Batek eskularruak janzten ditu eta besteak esaten dio nola kolpatu behar duen, edo boxeozakua kolpatzen dugu. Barikuak sparring-egunak izaten dira, lehian gabiltzanok praktikatu eta hobeto prestatu ahal izateko.

Aurten lehiatzen hasi zarela aipatu duzu lehen.

Bai, zortzi boxeomanalditan hartu dut parte. Haietako bat izan da Bizkaiko Txapelketa: finalurrekoa irabazi nuen, baina finala galdu; eta beste bat, Bizkaiko Opena: finalurrekoa ere irabazi nuen.

Nolako boxeolaria zara?

Praktika menderatzen dut, hau da, ondo mugitzen naiz. Baina, entrenatzaileak esaten didanez, indar eta agresibitate handiagoa behar dut. Banoa pixkanaka-pixkanaka hobetuz.

Nola ikusten duzu zeure burua borrokaldietan?

“Ez dago lehia handirik gure artean; bakoitza ahalik eta ondoen egiten ahalegintzen gara”

Nire pisuko eta adineko neska baten kontra borrokatzen banaiz, ondo. Nolanahi ere, baliteke ni baino hobea den neska baten kontra borrokatu behar izatea, eta orduan aukera gutxi daude irabazteko. Edo nire maila bereko lehiakide baten kontra ibili behar badut, bada, edozein gauza gerta daiteke: ondoen egiten duenak irabaz-

ten du, eta kito. Baina, orokorrean, neure burua ondo ikusten dut borrokaldietan.

Nolako giroa dago zuen artean?

Oso ona. Egia esan, ez dago lehia handirik geure artean. Hainbat boxeomanaldi egiten ditugu elkarrekin, eta azkenean lagunak gara. Ez gara ekarrekin haserretzen, eta ez dugu lehiakideari mina egiteko asmorik: bakoitza ahalik eta hoberen egiten ahalegintzen gara.

Zer gustatuko litzazuke lortzea?

Espainiako txapelketan parte hartzea gustatuko litzaidake; ea datorren urtean aukerarik dudan! Era berean, profesionala izan nahiko nuke.

Merezi du

Zamudioztarra Batxilergo Orokorra egiten dabil, etorkizunean zer ikasi hobeto erabaki ahal izateko. Kontatu digunez, boxeok ez dio denborarik kentzen, ez ikasteko, ezta aisialdiaz gozatzeko ere. “Ahaleginak merezi du, eta, egia esateko, ez diot gauza askori uko egin be-

har”. Bere ustez, gizonezko kideek onartu egiten dituzte emakumezko boxeolarien esfortzua eta kirol-lorpenak, eta publikoak ere gustura ikusten ditu emakumeen arteko boxeomanaldiak.

Amaitzeko, neskak boxeoa saiatzera animatu nahi ditu. “Kanpotik ikusita,

ematen du dena ezberdin dela. Nik lehen pentsatzen nuen boxeo mutilentzat zela; orain, aldiz, ikusten dut lehen pentsaezina ziren gauza asko lortzen nabilela. Gainera, banakako kirola da eta, hortaz, nork bere buruarengan ipini behar du arreta zein indarra”.

Azaroaren 11tik abenduaren 21era

Suit Delux atseden-asteak



**Nobedadeak, sustapen bereziak, edizio mugatuak...
Eta aukera paregabeak erakusketa-aldaketagatik!**

Aukeratu zure koltxoi berria eta hasi atsedeen hartzen merezi duzun bezala.

Derio / Derioko seminarioa
48160 Derio (Bizkaia)
T. 944 545 147

Leioa / Iparragirre 80
48940 Leioa (Bizkaia)
T. 944 316 516

suitdelux.es
Ohea aldatzen dizugu. Bizitza aldatzen dizugu.



Take Action: Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) eta 2030 agendaren inguruan ikasteko modu ludikoa eta esperientziala

Zalantzarik gabe, gazteek klima-aldaketak eragindako arazoak jasango dituzte. Gure ustez, garrantzitsua da biztanleriaren segmentu horrek ere bere ideiak adieraztea, eta Take Actionek ahalduntzea eragiten du.

Gainera, planetaren onurarako, lehen urratsa Change Maker Kultura sortzea da. Jolasa 2030 Agendarekin eta GJHekin lotutako erronketan oinarritzen da, jarduerara-ardatz gisa. Ikasgelan sartzean, ikasleak 4 herrialdetako presidente bihurtzen dira, eta Nazio Batuen Erakundearekin (hemendik aurrera NBE), Munduko Banku batekin, enpresen sektorearekin eta Mass Media sektorearekin batera GJH batekin edo gehiagorekin lotutako 23 erronka inguru gainditu beharko dituzte. Sentsibilizazioaz gain, zeharkako trebetasunak eta gaitasunak lantzen eta identifikatzen dira, hala nola talde-lana, konponbiderako orientazioa, oso ingurune aldakorretara egokitzea, iraunkortasuna, frustrazioarekiko tolerantzia, elkarrizketa...

ZELAN JOLASTEN DA?

Jolasa hainbat motatako erronkek osatzen dute. Horiek guztiak modu konplexuan diseinatuta daude, eta jokoaren elementuak (herrialdeak, NBE, Munduko Bankua...) eta haien interesak eta helburuak elkartzeko dira. Take Action jokoak munduko 4 mailak irudikatzen di-

tuen egitura bat du (itsaspekoa, lurrazala, airekoa eta kanpoko espazioa). Erronkei dagokienez, joko-dinamikan txertatzen diren hainbat figura daude: baliabide militarrak, lantegiak, errota eolikoak...

Negoiazio-aldien eta adierazpenen bidez, jokalariek interes desberdinetatik abiatuta, baina helburu berarekin, ebatzen dituzte erronkak. Jokoan, denek irabazten dute edo denek galdu. Horrek berarekin dakar balioak, trebetasunak eta gaitasunak garatzea, joko osatzen duten pertsonen eguneroko bizitzara estrapola daitezkeenak.

ETA TXORIERRIN ZER?

Esan bezala, Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Gaztediko laguntzarekin, Politeknikako batxilergoko lehenengo mailako ikasleek hartu dute parte, guztira 62 ikasle (19 neska eta 43 mutilak). Proiektua esperientzia aberasgarria izan da ikasleentzat; beren hitzetan, "erronkei aurre egiteko moduak, ikuspegi kritikoa eta taldean lan egiteko gaitasuna hobetu ditugu".

Take Action-ek, jolasa eta ikaskuntza uztartuz, ikasleei aukera eman die erantzukizunaren eta lankidetzaren garrantziak jabetzeko. Esperientziak gazteak ahalduntzen ditu, gizartearekiko eta ingurumenarekiko kontzientzia sakonagoa lortuz. Etorkizun jasangarriago bat eraikitzeko, ezinbestekoak dira honelako ekimenak.

Badago ikasteko beste modu bat, gero eta gela gehiagotan erabiltzen dena. Politeknikako lehenengo mailako batxilergoko ikasleak urrian zehar, jolasten ibili dira, Take Action proiektuan murgilduta. Jolasten? Bai, jolasten eta ikasten aldi berean. Proiektu horretan erabili den ikaskuntza metodologia ludikoa eta esperientziala izan baita.

ZER DA TAKE ACTION PROGRAMA?

Proiektuaren helburua da gazteak sentsibilizatzeko eta kontzientziazteko GJHen problematikaren inguruan, 2030 Agendaren esparruan.

TXORIERRIKO BERBAK

Umeak mugimenduan

Gaur egungo umeek ia ez dute zauri eta urraturik egiten. Arrazoia? Batetik, batzuk, behintzat, lehengoak baino gutxiago mugitzen direlako, teknologiaren erruz; eta, bestetik, gure parke eta txinboak sasoi batekoak baino "bigunagoak" direlako.

Umeek berezkoa dute batetik bestera mugitzeko zaletasuna. Gorputzean soberako energia dute, eta lotu barik ibiltzen dira, esperimentatzen, saltoka eta txiribueltaka.

Oinez ikasi aurretik martxa ederra har-

tuta ibiltzen dira umeak, *katuka* edo *laurtaxurka*. Behearen gainean etzaten direnean, batzuk *ahuspez* (edo buruz behera) ikusiko ditugu; beste batzuk, berriz, *ahoz gora* edo buruz gora.

Orekari eutsi gurean, hor ikusiko ditugu *kukulumixo* edo kokoriko; hanka bakarrarekin saltoka, *hanka-koxoka* edo txingoka; *txiribueltaka*, burua lurrean jarri eta gorputza itzulika... Aldatsetan, baita gorputza luze-luze jarri eta gorputza biraka ere, *birin-bolaka*.

Pozik joaten dira umeak *arrekikili* edo *kikili*, aita edo amaren lepoan, hankak alderdi banatan. Eta, eskainiz gero, atoan paratuko zaizkigu bizkarrean, hankak zabaldu, *arretxiko*, *arretxikili* edo *atxiko*. Eta, nor ez da ibili inoiz, aitiba edo amamarekin olgatzean, *izterkuluka*, euren oin baten gainean jesarrita, izterrak zabalik, gora eta behera.

Beste hamaika mugimendu daude: alboz, behatz-puntetan, tatarrez... Hamaika modu eder gorputzari eragiteko, familiakoekin olgatzeko, eta -ahal dela- euskaraz gozatzeko.

EUSKARAREN ASTEA TXORIERRIN

2024.2024.
2024.2024.

AURTEN DERION!

AZAROAK
28

19:00 | **BAKARRIZKETA** | GUREA ARETOAN
AFOROA BETE ARTE

TU-TUM,
PLATZ!

JON PLAZAOLA



AZAROAK
29

19:30 | **HERRIAN ZEHAR, KALEZ KALE**
» IPAR ALDE ABESBATZA KANTUAN
» KITTU TALDEA -
ERROMERIA IBILTARIA

AZAROAK
30

KONTZERTUA | 20:00
KIROLDEGI ONDOKO KANTXAN

**KORRONTZI
ETA TXORIERRIKO
DANTZARIAK**



ESKOLAK: 09:30/11:00 | KIROLDEGIAN

AZAROAK

26

EUSKARAOKEA

10-11 URTE

AZAROAK

28

POTX! MAGOA

4-5-6 URTE

AZAROAK

27

**AZKEN
EGUZKILOREA
ANTZEZLANA**

7-8-9 URTE

INSTITUTUA:

AZAROAK

27

GUREA ARETOAN | SAIO BI

**ELKARRIZKETA
MUSIKATUA**

ABESLARIAK:

EIRE TALDEKO

EIRE MAIA

J MARTINA TALDEKO

KATTALIN BARCENA



AZAROAK

29


SOLASALDIA | INSTITUTUAN | SAIO BI

**ETA GAZTEOK, ZER?
HARTZETIK,
ARITZERA**

KIKE AMONARRIZ



ANTOLATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK:





T ITXASO MARINA ANER MENTXAKA

AMAIA CARPIO
Nekazaria

“Herri baten idiosinkrasiaren parte da nekazaritza”

Carpiok Lurbeko nekazaritza ekologikoko ustiapena du Diego Sanzekin batera. Guztira 7.000 metro karratuko lursaila dute Loiun, eta hori ustiatzeko kontzesio Bizkaiko Foru Aldundiko Lurren Bankua egitasmoari esker lortu dute. Emakume nekazaria ortuan bertan topatu dugu, sasoiko produktuen artean lanean.

Zergatik erabaki zenuen Lurren Bankuan parte hartzea?

Bizkaian nekazaritzako lurra oso garestia delako. Ezinezkoa da zure burua leporaino hipotekatu barik lurra erostea, eta, nire ustez, oso inbertsio handia eta arriskutsua zen hasteko. Lurren Bankuaren alokairua arrazoizkoa da, eta horregatik erabaki nuen proiektuan parte hartzea. Lurra Loiuko Udalarenak dira, baina Bizkaiko Foru Aldundiari lagatzen dizkio Lurren Bankua egitasmoaren baitan erabiltzeko.

Noiz arte duzue kontratua?

Kontratua 2027ra arte dugu, baina, Lu-

rren Bankua egitasmoak aurrera jarraituko duen arren, ez dakigu kontratua berrituko diguten. Espero dugu horrela izatea, gure proiektua asko gustatzen zaigulako eta bertan gelditu nahi dugulako.

Baduzue B planik?

Diego beste sektore batean trebatzen dabil, eta amaitzen duenean baliteke nik ere ikastaroren bat egitea. Beste aukera bat izan liteke erretiroa hartzen duen nekazari baten ustiapena hartzea... Aukerak aztertu behar ditugu. Nolanahi ere, argi dugu, ahal dela, bertan gelditu nahi dugula.

Eta zerotik hasia beste leku batean?

Ez, aukera hori guztiz baztertuta dugu, ez dugulako ez gogorik, ez indarrik, ezta adinik ere. Lanbide hau oso gogorra da, eta lurra ez du lanean hasi eta berehala errentagarritasuna ematen. Gure kasuan, bi urte pasatu ziren emaitzak ikusten hasi ginen arte: landak ziren, eta denbora pasatu behar izan zen lurra baratzezaintzarako propietateak hartu zituen arte.

Zer ekoizten duzue?

Nekazaritza ekologikoan dihardugu, eta Ekolurra zigilua dugu. Sasoiko barazkiak ekoizten ditugu: orain, esate ba-

terako, kalabaza, indaba, erremolatxa, kipula, porrua, espinaka, zerbak, aza, brokolia... Negutegiak ditugu –lurrean landatzen dugu horien barruan–, eta aire zabaleko lursailak. Batez ere barazki-saskiak saltzen ditugu, eta horien banaketa Getxon, Bilbon eta Leioan egiten dugu. Bezero-taldea ere badugu, eta jakinarazten diegu momentu bakoitzean zein produktu dugun. Era berean, zapa-tuetan Erriberako merkatura joaten gara beste ekoizle bat ordezkatzera. Beste alde batetik, aipatu beharra dago bezeroen eskura inguruko beste ekoizle batzuen produktuak ere ipintzen ditugula, hala nola pastak eta kontserbak.

Hurbileko produktua baloratzen dute kontsumitzaileak?

Bai, asko. Alde batetik, kalitateko eta hurbileko produktua nahi duen kontsumitzailea dugu, nahiz eta beharbada produktu ekologikoa izateari aparteko lehentasunik ematen ez dion; eta beste aldetik, hiru ezaugarriak nahi dituena: produktu hurbila, kalitatekoa eta ekologikoa. Bezeroek gure lana estimatzen dute; eskaera badago.

Nolakoa da lanegun bat Lurbekon?

Orain, egunsentiarekin batera hasten gara lanean, bazkaltzeko ordura arte, 15:00ak arte. Udan, bestalde, 12-14 orduko lanaldiak egiten ditugu. Bi kide garenez, bakoitzak astean egun libre bat hartu dezakegu, eta astebururen bat, plan berezirik-edo badugu.

Oporrik hartzen duzue?

Bai, bakoitzak astebete hartzen dugu urtean. Aldundiak badu lehen sektoreko ekoizleoi oporrak hartzen laguntzeko programa bat, eta horretan parte hartu ohi dugu. Beste pertsona bat ipintzen du gure ordeiz, eta bere soldataren zati bat ordaindu.

“Lurrak ez du lanean hasi eta berehala errentagarritasuna ematen: gure kasuan, bi urte pasatu ziren”

Oso leku haizetsuan duzue ustiatzia...

Urriari 121 kilometro orduko haize-boladak ere izan ziren. Haizeak askotan apurtzen dizkigu negutegietako plastikoak, eta landareak ere lurrera botatzen ditu. Era berean, euri-jasak ez dira lagungarriak, ezta gehiegizko beroa ere. Baina, bueno, azkenean ikasten da eguraldi txarrari aurre egiten. Azken uda, adibidez, txar-txarra izan da ekoizpenerako, eta ezin dugu inongo laguntzarik eskuratu, ez delako hondamendizat hartzen...

Hondamendizat jo?

Erakundeek egoera zehatz batzuetan babesten gaituzte. Adibidez, Ukrainiako

gerra dela-eta gora egin zuen intsumoen prezioak, eta ekoizpenaren araberako diru-laguntza eman ziguten –nahiz eta proiektua bera kontuan hartu ez zuten–. Hala ere, esan moduan, azken uda oso txarra izan da, baina hondamendirik egon ez denez, ez zaie bururatzen kasu horretan ere laguntza behar dugunik. Are gehiago, negozioia ixtea pentsatzen dabilta batzuk.

Eguraldi txarra aipatu duzu, baina burokrazia ere oztipoa da zuentzat.


Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) eskakizunak, esate baterako, oso handiak dira, eta ekoizle txikiok ez dugu aholkulari baten laguntzarik. Hortaz, geuk egin behar ditugu paperak, eta horrek lan-orduak kentzen dizkigu. Gainera, suposatzen da NPBk tokiko ekoizpen jasagarriak babesten dituela, baina azkenean ekoizle edo enpresa handiak dira etekina ateratzen dutenak.

Zergatik?

Bada, lur gehiago erosi ahal dutenez eta inbertsio handiagoak egiten dituztenez, dirulaguntza handiagoak jasotzen dituztelako. Gainera, ekoizpen handiagoa ere badutenez, leku gehiagoetara ailegatzen dira eta merkaturak eurenganaten dute. Kostuak ere merkatzen dituzte, batzuetan langileen kontura bada ere. Era berean, proiektu handi horiek dena suntsitzen dute eta ez diote tokiko ekosistemari mesederik egiten. Guk, berriz, naturarekiko eta tokiko animaliekiko

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SARRIKOLA OGITEGIA

Euskal pastela
Basemiko ogia
Bizkobxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Centro Dental
Txorierri

Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Ainhoa Rodríguez Mella
Col. nº 48001337

Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462

Mitxine 7. behe - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)
Tfno. 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885
www.cdtxorierri.es

ORTODONCIA21



eta florarekiko errespetutsua den proiektua dugu, jasagarria ere badena eta paisaiari eusten laguntzen dioena, baina ekoizpen txikia dugunez, ez dugu ez hainbeste diru-laguntzarik, ez hainbeste erraztasunik. Edo gure kasuan, adibidez, ez dugu toxikorik erabiltzen, baina, hala ere, pestizidak erabiltzen dituztenek adina paper bete behar ditugu, eta adina kontrol pasatu.

Duela hilabete batzuk iritzi-artikulu bat idatzi zenuen aldizkari hone-tarako, eta bertan adierazi zenuen kontsumitzen dugun produktuen % 5 baino gutxiago direla tokikoak. Oso gutxi da.

Alde batetik, ekoizle gutxi gara, eta beste aldetik, zaila da supermerkatu-kate handiekin lan egitea, baldintzak ez direlako onak. Kate handiek asko doitzen dituzte prezioak, eta azkenean baldintzek itotzen gaituzte. Supermerkatu txikiak eta auzoko dendek, aldiz, badute beste ikuspuntu bat tokikoa erosteari buruz. Jende askok tokiko produktuak kontsumitu nahi ditu, eta horrela dela bermatzeko modu bakarra da ekoizleari zuzenean erostea.

“NPBk tokiko ekoizpen jasagarriak babestu behar ditu, baina azkenean enpresa handiek ateratzen dute etekina”

Elikadura-burujabetzaren aldekoa izango zara, ezta?

Bai, zeren eta kontsumitzen ditugun produktuak nondik etorri diren jakin behar baitugu, nola ekoiztu diren, zein lan-baldintzetan, kalitate onekoak diren... Herri baten paisaiaren eta idiosinkrasiaren parte da nekazaritza. Izan ere, azkenean zer geldituko zaigu? Bada, zelai hutsak eta sasiz beteak. Edo, Araban moduan, landak-eta garbitzen dituzten enpresa handiak, lan hori egiteko, jadanik ez dagoelako ez nekazari-rik, ez abeltzainik. Hori ezin da. Gogoratzten dut pandemia-garaian beldurra

zegoela hornigaiak ez ote zituzten etengo eta bat-batean mundu guztiak tokiko hornitzaile bat izatea bermatu nahi zuela. Baina pandemia amaitu, eta hori ahaztu zen gero.

Landa-eremua hiltzen ari dela adierazi zenuen esandako artikuluan.

Ez da bakarrik nire iritzia; lehen sektorean urteak daramatzen jendeak ere horrela pentsatzen du. Batz besteko adina oso altua da gure sektorean, eta laster erretiroa hartuko duten askok ez dute ordezkorik izango. Gero, aipatutako oztopoak daude: diru-laguntza handia jasotzeko, proiektu handietan sartu behar duzu, baina batzuetan ez duzu ez esperientziarik, ez gaitasunik. Hori dela eta, egitasmo askok porrot egiten dute azkenean. Horri lotuta, aipatu beharra dago beren buruaz beste egiten duten nekazarien tasa oso altua dela.

Zer egin dezakegu kontsumitzaileok landa-eremuari laguntzeko?

Tokiko nekazaritza-politika bideragarriak eskatzea, eta ekoizle txikiok laguntzea, gure produktuak erosiz eta gu babesteko eskatuz.



Peto-petoa

Carpiok (Bilboko, 39 urte) Historia Cikasi zuen, arkeologoa izan nahi zuelako. “Baina nire sektorean ez zegoen lanik, eta beste ikasketa batzuk egitea erabaki nuen. Nekazaritza Eskolara joan nintzen Lorezaintzan izena emateko asmoz; hala ere, Nekazaritzan matrikulatu nintzen azkenean. Ez nekien ezer mundu honi buruz, baina nire buruari esan nion «tira, saiatu!»”. Bere familia ez dago lehen sektoreari lotuta, baina hasiera-hasieratik babes-tu dute. “Oso pozik nago hartutako erabakiarekin. Gogobetetze handia ekartzen dute zeuk zure jakiak ekoizteak, landareak hazten ikusteak eta jendea elikatzeko produktuak ekoizteak. Baita bezeroek zure produktua gustukoa izateak ere, jakina!”.

Lehen ortua Trapagaranen izan zuen, lagun baten amak bere soroan utzitako zati batean. “Bertan ikasi

nuen zer egin behar nuen, eta batez ere zer ez nuen egin behar”. Ondoren, Loiura etorri zen. “Niri lursail bat eman zidaten, eta Diegori ondoan zegoena. Bertan ezagutu genuen elkar, eta pixkanaka-pixkanaka hasi ginen elkarri laguntzen. Ondorioz, erabaki genuen lursail biak lotzea eta egitasmo bakar batean lan egitea”.

Mikromatxismoren bat jasan duela kontatu digu. “Batez ere hasieran, oraindik negozioa Diegorekin ez nuenean. Baten bat etorri da azaltzera rotabatorra edo sasi-garbitzeko makina nola erabili behar nuen, baina gauza da nik banekie-la erabiltzen. Edo galdetzen zidaten ni bakarrik lan gutzia aurrera eramateko gauza izango nintzen...”. Era berean, nolabaiteko errezeloa sumatu du hiritik datozenekiko. “Batzuentzat ez gara nekazari peto-petoak”. Nolanahi ere, 10 urte badaramatza profesional moduan.

Ekin eta ekin 35 urtez. Publikoa, irekia, guztiontzat.



TXORIERRIKO UDAL
EVSKALTEGIA



hARTu

hütza

*Maila guztiak
Goizez eta arrastiz
Autoikaskuntza
Dirulaguntzak*

**ERDU GEUGAZ,
EGIZU EUSKERAZ!**

VALENTZIAKO HONDAMENDIA

Elkartasun-
uholdea

Urriaren 29an, DANA batek gogor jo zuen Valentziak, eta hainbat herritan eragindako kalte material zenbatezinez gainera, 200 lagun baino gehiago hil ziren euri-jasa bortitzaren ondorioz. Euskal Herriko eta Estatu-tako beste herri batzuetan bezala, Txorierrin ere antolatu dira herritarrak eta erakundeak, valentziarrei laguntzeko materiala, janaria eta dirua biltzeko eta furgonetetan eta kamioetan hara eramateko. Hurrengo lerroetan batu dugu tanta hotza lehen pertsonan bizi izan zuen txorierritar baten testigantza, baita ondorioak zuzenean ezagutu dituzten beste bi txorierritarren esperientzia ere.



JON URKIXO

T ITXASO MARINA

Ivan Gomezek bihotz-bihotzez esker-tu ditu txorierritarrek valentziarre-kiko izan dituzte solidaritate-keinu guztiak. Gomez Aldaia herrikoa da, eta bere emaztea, Paiporta herrikoa; DANAK gehien astindu zituen herrietakoak hain zuzen. Familia duela bi urte etorri zen Lezamara bizi izatera, Gomez Athleticen lanean hasi zen eta. Azaldu digunez, katastrofearen berri izan zuenean, ez zuen sinesten. “Nahiz eta irudiak ikusi eta testigantzak entzun, ez zara katastrofearen tamainaz kontziente. Asko larritu nintzen, ez nekielako egoera benetan zein zen. Hara joateko beharra sentitu nuen”. Gomezek Aldaian eta Paiportan ditu familia eta lagunak. “Ez genuen arazo handirik izan senide gehienekin harremanetan ipintzeko; hala ere, lau egun eman genituen amaginarrebaren berririk gabe eta txarrena pentsatu genuen. Baina, zo-


rionez, komunikazioek ez zutelako ondo funtzionatzen izan zen. Senide eta lagun guztiak daude ondo, eta gehienbat kalte materialak jasan dituzte: batzuek ibilgailua galdu dute; beste batzuek, tamalez, etxea edo negozioa”. Gomezek baimena eskatu zion klubari Valentziara joateko, eta materiala eramateko furgoneta bat ere eskatu zion. “Bidaia egingo genuela komentatu genuen Lezaman, eta alkateak deitu zidan laguntza eskaintzeko. Albis-tea herrian zabaldu zen, eta lezamarrak ere antolatzen hasi ziren material-bilketa egiteko. Itzela izan da, eta bi bidaia egin ditugu furgonetak eta kamioi bat material bezala. Besteak beste, eraman ditugu botak, garbitzeko materiala, frontalak, musukoak, pixoihalak, karcherrak, janaria... Lehen bidaiari Aldaiako, Paiportako eta Picanyako herritarren artean banatu genuen materiala, baina bigarren bidaiari

atondutako pabilioi batera eraman dugu, materiala benetan behar dutenengana heltzen dela bermatzeko”.

Athleticeko teknikariaren esanetan, erabateko kaosa topatu zuten Valentziara ailegatu zirenean. “Ezin zen kaleetatik igaro, ez zegoen norabiderik eta ahal moduan gidatzen zen... Paisaia atsekabegarria ikusi genuen: ibilgailuak edonon, suntsituta, buelta emanda, lokatza, kanaberak, urak eramandako guztia zabaldu-ta, altzariak kalean... Jende asko eta asko ere ikusi dugu lanean, Estatu-tako hainbat herritatik ailegatutako suhiltzaileak, polizia, lagunak... Baita kalteak jaso dituzten herritarrak ere”. Kontatu digu egonezin eta tristura handia sentitu zuela. “Emaztearen lagunik onenak, esaterako, den-dena galdu du, eta elkartu ginean denbora luzez izan ginen elkar besarkatuta eta negar egiten... Ez dago kontsola-



Ivan Gomez lezamarra Aldaiakoa da jatorriz.



mendurik. Nolanahi ere, asko eskertzen dute jasotzen dabilzan laguntza guztia. Sentimendu kontrajarrien mukurua da: tristura, baina poztasuna ere, jendea ondo dagoelako... Eta oso shock handia, herria eta kaleak horrela ikusteagatik”.

Denbora luzea beharko dute valentziarrek normaltasunera-edo itzultzeko, eta Gomezek esan digu batez ere eskatzen dutela haiekin ez ahaztea. “Orain laguntza handia jasotzen dabilta, baina honek luze joko du, eta denboraren poderioz laguntzarik ez jasotzearen beldur dira”.

Hasierako lerroetan adierazi moduan, orrialde hauetatik Gomezek eskerrak eman nahi dizkie lezamarrei, Lezamako Udalarari eta txorierritarrei, agertutako solidaritateagatik. “Eta bereziki Iban Alborigari eta Gaizka Saezi eta euren familiei, ahalegin handia egin dutelako nirekin Valentziara joateko”.

“Laguntza handia jasotzen dabilta, baina honek luze joko du, eta denboraren poderioz laguntzarik ez jasotzearen beldur dira”

EGUN NORMALA

Maidar Barrena zamudioztarrak bi urte eta erdi daramatza Torrent herrian, eta DANAK etxean harrapatu zuen. “Egun normala zen. Ez zuen euri askorik egiten, eta bikotekidea gimnasia joan zen. Arratsaldeko 7etan deitu zidan, oso urdu-ri, eta esan zidan autoan zegoela eta ura

gerriraino ailegatzzen zitzaiola eta autotik irten behar zuela”.

Kontatu digunez, bikotekidea Paiportako gimnasio batera joan ohi da. “Argindarra joan zen, eta etxera itzultzea erabaki zuen. Errepidean dena zen normala, eta ez zuen euririk egiten, baina bat-batean uholdea ikusi zuen berarengana hurbiltzen, erreka handi bat moduan, eta konturatu orduko urak harrapatu zuen. Autotik nola irten zen entzun nuen, baita uraren zarata ere. Atzetik zetozen autoen gidariei aurrera ez jarraitzeko oihukatzen ziela entzun nion; oso larrigarria izan zen”. Komunikazioak eteten ziren txitean-pitean, eta Barrenak eta mutil-lagunak tarteka lortzen zuten elkarrekin hitz egitea edo mezuak elkarri bidaltzea. “Gidari batek hartu zuen, eta industriale batean dagoen supermerkatu handi batera joan ziren, supermerkatua gain

ZAMUDIO
Loteria Nazionalea

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
loterias.zamudio@gmail.com

HARATEGIA
ALBERTO

Arbolantxa, 4
Tel.: 944 520 825
48170 ZAMUDIO

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburunbata:
8:00-13:30

Urbe plaza, 1 behea
Zamudio
944 520 419



Maidar Barrena zamudioztarra, Torrent herrian bizi dena.



MAIDER BARRENA

batean dago eta. Ura supermerkatu ere sartu zen, eta bertan 20 bat lagun harrapatu zituen. Teilatura igo behar izan zuten. Telefonoz hitz egiten genuen, baina estaldura oso txarra zen eta komunikazioa eteten zen... Bideoaren bat ere bidali zidan, eta supermerkatuaren kanpoaldea urak hartuta ikusten zen, urak parkineko autoak eroaten...”.

Zamudioztarraren bikotekidea eta gainerakoak goizaldeko ordu bata arte izan ziren supermerkatuko teilatua. “Ur-maialak behera egin zuen, eta etxera itzultzen saiaturko zela esan zidan. Beste gizon batekin, 10 kilometro egin zituen Paiportatik Torrentera, oinez eta metroko burdinbideari jarraituta, ez zegoelako beste modurik. Paiportaren egoera penagarria zela kontatu zidan: jendea kalean, etxeak eta dendak suntsituta, autoak bata bestearen gainean...”. DANAK Torrent ere astindu zuen arren, gazteak esan digu bera bizi den inguruan ez dela hain kalte material larririk egon. “Poyo sakana pasatzen da herritik, eta haren hurbil dauden etxeak suntsitu dira; herriko gainerakoak ondo daude gutxi gorabehera. DANA pasatu eta hurrengo egunean ur eta estaldura barik izan ginen, baina barikurako bagenuen berriro zerbitzua. Herritik ateratzea eta herrira sartzea, bestalde, korapilatsua goa da, Torrenten genituen bost zubietatik bakarrik bat zutik geratu baita”.

“Errepidean dena zen normala, eta ez zuen euririk egiten, baina bat-batean uholdea ikusi zuen berarengana hurbiltzen”

Metro barik eta errepideen egoeraren ondorioz, valentziarrek zail-zail izan dute joan-etorriak egitea. “Nik Valentzia hirian egiten dut lan, eta nagusia motoz etorri da nire bila lanera eramateko, eta gero etxera ekarri nau. Hogei minutu dira Torrentetik Valentziara, baina lehen egunetan bi ordu-edo behar ziren ibilbidea egiteko; 45 bat minutu motoz”. Barrenak eta bikotekideak autoa galdu dute, baina azpimarratu du, zorionez, haiek zein lagunak eta ezagunak ondo daudela. Urriaren 29a edozein egunen antzera hasi zen haientzat. “Abisu larangan geunden, baina ez genuen inondik inora imajinatzen hondamendi hau gertatuko zenik. Bizitza normala egiten genbiltzan, eta bat-batean... Niri 20:30ean ailegatu zitzaidan alerta-mezua, eta mutil-lagunari, 20:00etan, supermerkatuan urez inguratuta zegoela”.

KAOSA

Valentziara ailegatu zirenean erabateko kaosa topatu zutela kontatu digu Jon Urkixo suhiltzaile larrabetzuarrak. Bilboko suhiltzailea da, eta Alfafar herrian izan da lanean beste 13 lankiderekin batera. Bertara azaroaren 5ean abiatu, eta hilaren 8an bueltatu ziren. “Harrigarria, benetan... Ze errepidetik gindoazela dena normal-normal ikusten genuen, eta bat-batean kaosera heldu ginen. Menditik jaitsitako ura mingain handi bat izango balitz moduan handituz joan zen, eta eragina izan zuen eremuaren egoera ikaragarria zen: dena suntsituta, autoak autoen gainean, lupetza edonon... Kamioitik jaisteko ere kontuz ibili behar zen, lupetza belauneraino heltzen zitzaigun eta. Kale guztiak berdin zeuden... Hasieran jende gutxi geunden, baina gero militar gehiago etorri ziren, poliziak, kamioiak, hondeamakinak, helikopteroak zeruan... Ni ez naiz inoiz gerra batean egon, baina balez aparte, horrela izan behar da...”.

Suhiltzaile-lanetan ibili ziren Alfafar herriko kale batean, 8 de marzo kalean hain zuzen. “Ura ateratzeko bomba batzuk eraman genituen, ekipo elektrogeno handi bat, palak, mazoak... Kalea garbitzen eta gara-jeetatik eta eraikinetatik ura kentzen ibili ginen, baina gu ura ateratzeko prestatuta gaude, ez lokatza, eta bonbak trabatzen ziren, edo materiala apurtzen zen... Orduan, jendeak euren materiala uzten zigun, eta



Jon Urkixo Larrabetzuko suhiltzailea, ezkerrean.



JON URKIXO

asko lagundu. Zerbait egiten hasten ginen, eta bazeuden hainbat lagun gurekin lan egiteko prest. Eskuz esku lan egin dugu bertokoeekin, eta alderdi politiko guztietako jendea ere ikusi dugu elkarrekin lanean". Antolaketa eza ere bazegoela kontatu digu, eta bakoitzak ahal zuena egiten zuela. "Adimena zorrozten ibili behar izan genuen, eta momentu bakoitzean zer egin erabaki, baina, bueno, onak gara horretan... Nolanahi ere, beti zegoen zer egin, eta ez ginen ezta segundo batean ere gelditzen: ura ateratzeko bonbek funtzionatzen ez bazuten, adibidez, etxerik etxe ibiltzen ginen zer behar zuten galdezka. Gaua Picassent herriko kiroldegian ematen genuen, eta goiz-goizean berriro lanean".

Kale bakar batean ibili baziren ere, Urkixoren esanetan, hiri bat balitz moduan zen, lan pilo bat egin behar zelako. "Lehen egunean, kaosa nagusi zen kale horretan, baina bigarren egunean bazegoen handik

“Ez naiz inoiz gerra batean egon, baina balez aparte, horrela izan behar da...”

pasatzea. Gu kalea garbituz joan ahala, atzerako hondeamakinek lokatza kentzen zuten, eta hornidura-puntuak ipintzen ziren, hangoek ez zutelako ez janaririk, ez gasik, eta askok ere ez zuten argindarrik". Larrabetzuarrak herritarren jarrera gailendu du, nahiz eta egoera guztiz etsigarrian dauden. "Ahal zuenak lanean laguntzen zigun, edo zerbait jateko edo kafea ekarri. Gehienetan irribarrea ahoan, ze umorea ez galtzea funtsezkoa zen hain egoera penagarrian...". Psikologo-lanak ere egin behar izan zituzten. "Gure lanagatik, hainbat

motatako egoeratan izan ohi gara, eta ikasi dugu gehienetan hobe dela isilik egotea eta entzutea. Batek negarrez kontatzen zigun bere senide bat hil zela; beste batek den-dena galdu zuela... Adineko emakume baten senarra etxean ito zen, eta gorpua hiru egunean izan zen uretan... Bestalde, askok eskatzen ziguten ibilgailuko matrikula hartzea aseguru-entresarako, baina batzuetan ibilgailuak pilatuta zeuden garajeetan eta ezin genuen matrikularik hartu".

Beste alde batetik, aipatu beharra dago Urkixo ahalegindu zela umeentzako pixoi-halal eta esnea batzen, eta horiek beste lan-kide batek eraman zituela furgoneta batean Valentziara. Egoeraren gordintasuna alde batera utzita, suhiltzaileak azpimarratu du esperientzia ikargarria izan dela. "Oso polita izan da ikustea lekua nola topatu dugun eta nola utzi dugun". Hori Valentzian bildutako hainbat eta hainbat boluntarioen eta herritarren lanari esker izan da.

Ford Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala




Txorierreri et., 46
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31



RADIO TAXI FEMADE
Zure taxi, Teorierrikoa

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Lolu

24h **94 480 09 09** 

ERRESERBAK:
www.taxisaeropuertobilbao.com

DESCARGA APP-A



TAXI FEMADE



Jon Plazaola aktorea eta umorista



Potx! magoa

EUSKARAREN ASTEA

Parte-hartzea eta erabilera, Euskararen Astearen ardatz

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko da, eta ohikoa denez, ospakizunaren harira, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak ume, gazte zein helduentzako ekintza-sorta zabala antolatu du azaroaren 26tik 30era bitarterako. Euskararen Astea Derion egingo da aurtan, eta aurreko edizioetan bezala, bi ardatz nagusi izango ditu: herritarren parte-hartzea eta euskararen erabilera.

“**A**ntolatu ditugun ekintza guztietan lehenetasuna dute ahalik eta jende gehienek parte hartzeak eta euskararen erabilera sustatzeak”, azaldu du Laura Martinez euskara-teknikariak. Lehenetasun horiek biak presente izango dira Txorierriko Euskararen Astean egingo diren ekintza guztietan. Ekintzak azaroaren 26an hasiko dira herri-ikastetxeetako umeen eskutik. Ekintzetan 1.200 ume inguruk hartuko dute parte.

Lehen saioa Euskaraokoa izango da 5. eta 6. mailetakoko ikasleentzat. Martinezen esanetan, 140 euskal kanta, zaharrek zein modernoak, bidali dira eskolara, ikasgela bakoitzak bat aukeratu eta horren abestia eta koreografia prestatu ditzan. “Antolatzen dugun hirugarren urtea da, eta, egia esan, egundoko indarra hartu du. Gainera, ekintza hobetuz eta profesionalizatuz doa urterik urte”. Hurrengo egunean, azaroak 27, *Azken*

eguzkilorea antzezlanaz gozatuko dute zazpi urtetik bederatzirterako bitarteko umeek. Eguenean, azaroak 28, Potx! magoak magia eta sorpresaz betetako ikuskizuna eskainiko die lau urtetik sei urterako bitarteko umei. Hiru ekintzak kiroldegiko kantxan izango dira, eta ekintza bakoitzeko bi saio egingo dira. “Aipatu beharra dago Derioko eskola buru-belarri dabilela prestaketa-lanetan, haiek egingo baitituzte aurkezpenak saio bakoitzaren aurretik. Era berean, 6. mailakoek bertsoak prestatu dituzte Etxahun Lekueren laguntzaz. Bertsoak herri ikastetxeetara bidali dira, ikasleek ikasteko eta gero, saioen egunean, guztiek batera abestu ditzaten”.

Gazteengan eragitea da Euskaren Astearen antolatzaileen beste helburu bat, eta horretarako, bi ekintza erakargarri prestatu dituzte azaroaren 27rako eta 29rako. “Alde batetik, elkarrizketa musikatuak izango dira Gurea Aretoan, ins-

titutuko lehenengo mailakoentzat. Eire taldeko Eire Maia eta J Martina taldeko Kattalin Barcena gonbidatu ditugu aurtengo saiora, eta ikasleek galderak prestatu dituzte abeslari biei egiteko. Era berean, Batxilergoko talde batek joko du saioan. Beste aldetik, institutuko Batxilergoko I. mailako ikasleek solasaldia izango dute Kike Amonarrizekin, euskararen erabilera duten papera hausnartzeko. Helburua da gazteak inplikatu, xaxatu eta erakartzea, eta Amonarriz baino hoberik ez dago horretarako”. Kasu honetan ere bi saio egingo dira ekintza bakoitzeko.

ASTEBURUAN

Publiko orokorrenentzako ekintzak egunean hasi, eta zapatuan amaituko dira. Azaroaren 28an, Jon Plazaolaren *Tu-tum, platz!* umorezko bakarrizketaz gozatzeko aukera egongo da. Saioa 19:00etan, Gurea Aretoan, egingo du Urretxuko aktoreak, eta sarrera librea



Korrontzi taldea

izango da aforoa bete arte. Barikuan, 19:30etik aurrera, Ipar Alde abesbatza eta Kittu erromeria-taldea kantuan eta dantzan ibiliko dira iluntzea girotzeko. Ekintza hau Derioko Udalaren laguntzaz antolatuta da.

“Korrontziren ikuskizuna izango da ekitaldirik potenteena eta herri mailan eraginik handiena izango duena. Hori zapatuan izango da, baina ez genuen kontzertu hutsa izatea nahi; herritarrek parte hartzea nahi genuen. Hortaz, Lainomendi dantza-taldearekin ipini ginen harremanetan, eta proposatu genien agertokian Korrontzirekin batera aritzea. Lan handia ekarri arren, aukera ona da haientzat eta proposamena onartu zuten. Era berean, Txorierriko gaine-

rako dantza-taldeak gonbidatu genituen ekitaldian parte hartzera, eta Lezamako Kurutze dantza-taldea animatu da. Dantzariak irailetik dabilta buru-belarri entseguak egiten, Korrontziren irakasle batek gidatuta zein euren kabuz. Agertokira Txorierriko 20 bat dantzari igoko dira, eta oso ekitaldi polita izango da zalantzarik gabe”.

HAZIA

Partaidetza handiko Euskararen Astea izatea espero du Martinezek. “Gainera, gazteen kasuan, norbaitengan zeozer piztea lortzen badugu, gu pozik”. Gogora ekarri duenez, laster Euskaraldia izango da, eta hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa soziala ere beste aukera bat da

gazteengan eragiteko. “Ea lortzen dugun gazteen talde bat sortzea, ze azkenean dena dago lotuta. Mihiluze egitasmoa ere hor dugu. Jakin badakigu jende guztiak ez duela egun batetik bestera euskaraz egingo, baina, gauza puntual bat egin baina, aipatutako moduko ekintzak lotu behar dira, ereinez eta ereinez joaten den hazia baitira”.

Uzta zain, azpimarratu du Derioko ikastetxean irailetik oso lan handia egiten dabilzala Euskararen Asteari begira. “Iaz Sondikan izan ziren ekintzak, eta hango eskolak itzelezko lana egin zuten, eta oso balorazio positiboa egin zuten. Pizgarria izan zen haientzat. Seguru nago iaz Sondikan egon zen indar eta ilusio hori aurtan ere Derion ikusiko dugula”.

aldeko one
hartz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Urbe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

Alde-afaindegia

M^a Antonia Llodio TXPI

Txorierriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781



JOANES CAMARA Gizarte-teknikaria

EMAUS (in)Adaptados

Orain dela urtebete, egitasmo zinematografiko batean parte hartu genuen Derioko PAI Bitartean eguneko zentzoko langileok eta erabilitzaileok. Ekintza berria izateaz gainera, ilusioz eta erronkaz betetako egitasmoa izan zen zentroan egunero artatzen ditugun pertsonentzat. Egitasmoaren baitan, PAI Bitartean zerbitzuko lehen laburmetraia egin genuen: *La Vuelta*.

Oso esperientzia arrakastatsua izanenez, bigarren edizioa egin dugu aurten. Horretarako, gizartetik kanpo dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonak egunero aurre egin behar dieten arazoei heldu diegu, eta Emaús Gizarte Fundazioak eta beste erakunde edo egitasmo

batzuek kudeatzen dituzten etxebizitzetako egunerokotasuna islatu dugu bigarren ikus-entzunezko lanean.

Laburmetraia helburua da herri-tarrak sentikor bihurtzea auzo-testuinguruetan eta etxebizitzetako partekatuetan gertatu ohi diren egoerekiko. Izan ere, egoera horietan dauden hainbat errealitate tartean, batzuetan pertsonak aurreiritziak dituzte eta une deserosoak eta tentsioz beteak sortzen dira. Horregatik, *(in)Adaptados* tituluak mahai gainean jartzen ditu kolektibo honek komunitate batera egokitzeke dituen zailtasunak.

Egitasmoa aurrera ateratzeko, nahasketa perfektua egin dugu hurrengo pertsona hauen lanari esker: gure

erakundeko pertsonak, boluntario moduan parte hartu dutenak, Aritz Albazar (argazkilaritza eta muntaketa), Eva Martín (gidoia), Emilio Encabo (soinua) eta Iker Zarate eta Silvia Sanchez (aktoreak). Emaítza oso gogobetegarria izan da guztiontzat, baina batez ere PAI Bitartean zerbitzuan artatzen ditugun pertsonentzat, zeren eta laburmetrai errebindikatzailen grabazioan parte hartu baitute beste behin ere.

Proiektua biribiltzeko, laburmetraia Derioko Gurea Aretoan estreinatu dugu azaroan, Emaús Gizarte Fundazioak antolatutako Nomada Jaialdiaren egitarauaren barruan. Laster YouTube plataforman izango da, nahi duen guztiak ikusi dezan.

LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA
MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32
Jarrai itasguz Facebook-en

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku
Zerbitzu Beharrik Logopedia Podologia Krimasajeta
Txorisolo 4, behe B | Arteaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 857 79 54 45
info@dentalezinduz.com | www.dentalezinduz.com

auzoKide
Finken administratzailea
LORENA GAMBOA AGUIRRE
Txorisolo 4, behe B | 634 410 470
48150 SONDIKA | auzokidefincas@gmail.com

XABIER DIAZ

@xa2_baraka@mastodon.eus

TEKNOLOGIA

Pribatutasuna arriskuan (oraindik arrisku handiagoan)

Trumpek hauteskundeak irabazi dituen honetan, kezkatuta egon beharko lukete bere aurka agertu diren aktibistek, kazetariak, zientzialariek eta abar. Bere mehatxuen heren bat gauzatzera animatuz gero, erruki... Gezur eta irainak zabaltzeko, besteak beste, bere lagunen medioak (Twitter/X, FOX, ...) lotsa barik erabili baditu, zer izango ote da Estatu Batuetako palanka guztiak berriz bere eskuetan egongo direnean?

Wired aldizkari digitala pribatutasunaz kezkatuta dago, eta horrela adierazi du "Gobernuaren zaintzatik babesteko WIRED gida" artikuluan¹ (The WIRED Guide to Protecting Yourself From Government Surveillance). Eta ez da gutxiagorako, Trump publiko eta biziki zoriontzeko agertu diren lehenengo artean izan baitira enpresa digital handien zuzendariak (Facebook, Apple, Google, Amazon...).

Hasteko, pasahitz egoki eta desberdinak erabili beharko genituzke, aplikazio zein gune bakoitzeko bat. Lan honetan lagun dezaketen pasahitz kudeatzaileak erabiltzea gomendatzen dizuet. Beste guztia alferrik da, leku desberdinetan

pasahitz bera erabiltzen badugu (aski litzateke aplikazio batetik lapurtzea, leku guztietara sartu ahal izateko), edo oso pasahitz sinplea bada.

Ertzetik ertzerako zifratzea (end to end encryption) erabiltzen duten mezularitza-aplikazioak ere erabili beharko genituzke. Era horretan ez da bakarrik komunikazioa zifratzen; aplikazioaren zerbitzarietan ere zifratuta gordeko dira komunikazioak, eta, beraz, enpresek ezingo dituzte irakurri, eta are gutxiago hirugarren batekin partekatu. Horrela egiten dute WhatsApp, Signal, edo Apple iMessage eta FaceTime plataformek.

Gauza bera egin beharko genuke posta elektronikoari, hodeian informazioa edo argazkiak gordetzeko guneei eta erosketa-guneei dagokienez. Zerbitzarietan informazioa zifratuta gordetzen ez badute, gobernuak hala eskatuta, badute informazioa irakurtzeko aukera eta, hortaz, ematekoa. Eta zer esan sakelako telefono, ordenagailu, disko gogor eta USB memoriei buruz? Horiek zifratuta ez badaude, gailua atzitzerik duen edonork eskura ditzake datuak. Egun, sistema eragilea edozein dela ere

(Android, Windows, iOS, Linux, ...), zifratzeko aukera eskaintzen da, eta USB zein disko gogorretarako zifratze-lanak egiten dituzten programak ere badaude.

Saretik gabiltzala onartzen ditugun cookieak, bisitatzen ditugun lekuak, parte hartzen dugun zozketak... Informazio hori guztia erabil daiteke gure profila egiteko. Eta ez hori bakarrik: nahiz eta orain neurri egokiak hartu (TOR moduko nabigatzaileak eta VPNak erabilia eta cookieak onartu bari nabigatzea, adibidez), orain arte egindakoa jada badago sarean, eta ez da erraza (ezinezkoa, kasu askotan) arrasto hori ezabatzea.

Gauza asko gelditu dira aipatu barik (erabiltzen den bilatzailea zein adimen artifizialaren aplikazioa, Siri edo Alexa moduko laguntzaileak...), baina espero dut pribatutasunaren inguruan emandako aholkuak lagungarriak izatea, Ipar Amerikako soziopataren baten jomugan ez bazaude ere.

¹<https://www.wired.com/story/the-wired-guide-to-protecting-yourself-from-government-surveillance>

ArtileArtean
Mungialde, 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com

Torrealday
ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOAK
ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOULKULARITZA

ELORRIETA
INSTALACIONES ELÉCTRICAS
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
INSTALAZIOAK, MANTENTZE-LANAK,
KONPONKETAK...
MATERIAL ELEKTRIKOIA SALGAI
info@elorrietainstalaciones.com 639 582 547
Urbe kalea 12 behea · Derio 944 540 386



1 Gerediagako batzarretxea



2 Ola zaharreko zubia



3 Santa Katalina

T O IÑAKI OLABARRIETA - JOSE ANGEL MENTXAKA

MENDITIK PATXADAZ

Durangalde historikotik

Durangalderantz egingo dugu oraingoan. Abadiño, Berriz, Garai eta lurreta udalerrietan zehar hamar kilometroko ibilbide errazean zer ikusi badago-eta: Momoition egongo gara, bailarara jaitsi aurretik jendea non bizi zen ikusteko; Gerediaga bisitatuko dugu, herriak sortu ostean biltzarrak non egiten ziren ezagutzeko; Arrierreka edo Garai errekatik gora joango gara, uraren aprobetxamendu osoa ulertzeko; eta hilobi interesgarriak eta leiho prerromanikoak ere ikusiko ditugu, beti Anboto inguruko mendiak bistan ditugula.

Ibilbide zirkularra denez, edozein lekutik hasi daiteke; guk Matiena-Abadiño aukeratu dugu. Donostia doan errepede nagusian San Blas hotela dago. Bertako aparkalekuan autoa utzi, burdinazko zubitik errepedea gurutzatu dugu, eta eskuinetik autobide azpitik pasatu gara. Gutxira, Gerediagako Batzarretxe elegantea dago. Urteetan zehar, bertan egiten ziren Durangaldeko herrien batzarrak, inguruko paneletan ondo azalduta dagoenez.

Garaira doan bide nagusia utzi, eta hurrengo bide estuagoa hartu dugu. Bide lasaia da, etxez etxe doana. Bidea Arrierreka edo Garai erreka bazterretik doa, eta historian zehar hainbat ola, errota edo hidroelektrikoren lekukoa izan da. Badagoz ur-kanalak, anteparak... Une batean, Olazarko ola eta Makinetxea zaharrak aurkitu ditugu azalpen-panelak

alboan. Etxalde handia pasatuta, eskuinetako pista hartu dugu erreka ondotik eta harrizko oso zubi elegantearekin egin dugu topo: Ola zaharrean gaude. Berriro errepedean zentral hidroelektriko bi behintzat aurkitu ditugu bata bestearen atzean, XX. mendean sortuak, uraren indarra aprobetxatzeko. Patalako zentral elektrikoa pasatu, eta laster ezkerreko pista hartu dugu. Aldapatxo baten ostean Garai herrira heldu gara.

San Juan eliza bisitatu, eta hemendik aurrera marka zuri-gorri jarraitu diegu: Ardoa eta Arrainaren GR-38koak dira. Kilometro eskasean errepede nagusitik joan behar dugu, Santa Katalina ermitaraino, eta aurrean duen hilobi gaineko harrizzarrean fijatu gara. Bide nagusia utzi eta ezkerrean eginez, laster heldu gara Momoitio auzoko San Juan ermitara. Leku garrantzitsua da, herrien sorrera ulertzeko. Hilobi asko aur-

kitu izan dira bertan, estela interesgarriekin. Ermitako leihoak museo txikia bihurtuta daude; merezi du lasai begiratzea.

Aurrera eginez asfalto utzi, eta markei jarraituz beherantz doan basoko pistak Amatzako San Martin ermitara eraman gaitu. Hemen aipagarriak dira ermitaren atzeko hormako leiho prerromaniko interesgarria eta ermita aurrean aurkitu daitezkeen Erdi Aroko hilobiak, bata iturriaren aska bihurtuta. Aurrera jarraituz, autobidera heldu baino lehen, markak utzi eta ezkerreko pista hartu dugu Santi Mami ermitaraino, bere bolaleku bereziarekin. Apur bat atzera eginez autobidea pasatu, eta ezkerretik paralelo doan pistatik hasieran, eta gero errepedea saihesteko bidezidor bati jarraituta, irteerara heldu gara. Bidaia aprobetxatu daiteke inguruan dagoen Garaiko zuhaitz erraldoia, artea berau, bisitatzeko, benetan ikusgarria da eta.



4 Momoitioko estela



5 Amatzako lehio prerromanikoa




6 Garaiko artea

Ibilbidea

Distantzia: 10 km

Desnibel positiboa: 275 m

Eskuratu
hemen
ibilbidearen
track-a



L. LEIZAOLA PLAZA 2 (ZAMUDIO)
946 522 857

OAKLAND
ENGLISH

TABERNA GAZTEDEI

@gazteditaberna_lezama
944 554 422 · Aretxalde 141 · LEZAMA

sarraila-denda Txorierri
ADITUAK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURITASUNEAN

946 038 663
625 100 800
info@cerajeriatxorierri.com
www.cerajeriatxorierri.com

Alain Pomposo Zarate
Urkiola, 4 Iorja
48160 Derio



FREEPIK

@TXIRIBITA_MUNDI

HERBARIOA

Huntza

Hedera Helix. Ohiko landare igokaria da, lurretik hainbat metrotara goratu, eta ia edozein azal-motatatik igo daitekeena, hala nola zuhaitzetatik, harkaitzetatik eta hormetatik. Mediterraneokoa eta Erdialdeko Europakoa da jatorriz. Hostoak distiratsuak dira gainaldean, eta mateak, azpialdean. Leku heze eta ospeletan izaten da, harresi edo zuhaitzen aldean.

Bakarrik hostoak erabiliko ditugu. Hostoak edozein sasoiatan batu daitezke; hala ere, gomendagarria da loratu baino lehen batzea, udaren amaieran, urrian-edo. Erabiliko ditugunak bakarrik batuko ditugu, fresko erabiliko ditugu eta.

PROPIETATE SENDAGARRIAK

Hainbat gaitz arintzeko erabiltzen da, esaterako, kailuak, zauriak, erredurak eta zelulitisa. Batez ere kanpoko tratamenduetan erabiltzen da, izan ere, dosi egokia ezagutu ezean, beste erabilera-mota bat arriskutsua izan daiteke.

Baiak pozoitsuak dira, eta ez ditugu jan behar. Hostoak, aitzitik, eraginkorrak dira, adibidez, hilekoak, erredurek edo furunkuluek eragindako minak arintzeko, ur egosita, infusioa edo tintura edaten bada. Nolanahi ere, dosifikazioari eta toxikotasunari lotutako arazoak direla eta, barne-erabilera ez da gomendagarria.

KANPOKO ERABILERA SENDAGARRIAK

Analgesiko naturala da, eta laguntzen digu edozein min-mota arintzen: hagineta mina, belarriko mina, gota, min erreumatikoak... Era berean, erreduretarako eta hanturetarako erabili daiteke. Hostoek eta zurtoinak taninoak eta gatzak dituzte, eta oso baliagarriak dira zauriak eta ultzera barizedunak orbaintzeko. Saponinak ere badituzte, hodi-uzkur-tzaileak direnak eta, hortaz, barizeak eta zelulitisa arintzeko baliagarriak direnak. Batez ere modu topikoan erabiltzen da; ahoz hartzeko, oso dosi txikietan eta adituek prestatuta hartu behar da.

- Zauri, erredura eta larruazaleko gaitzetarako, egosi eta erabili ura, eremua garbitzeko. Hosto galdarraztatuek kataplasma moduan erabili daitezke. Konpresak eta pomada ere erabili daitezke.
- Erreumarako eta neuralgiatarako, hosto freskoak irakin, eta kataplasma

moduan erabili daitezke. Pomada ere lagungarria da.

- Haginetako mina arintzeko, egosi eta erabili ura, ahoa garbitzeko.

ERABILERA KOSMETIKOAK

- Oinetako gogorguneak eta kailuak biguntzeko, hostoak ozpinetan beratuko ditugu 24 orduan, eta kataplasma ipini.
- Koipea disolbatzeko eta zelulitisari aurre egiteko, egositako uretan bustitako konpresak ezarri ahal ditugu eremuan, edo masajeen bidez pomada ipini.
- Buruko ilea indartzeko, egositako ura erabili daiteke ileari xaboia kentzeko. Ilea ilunduko du.
- Eguzkiak eta urteak igarotzeak lurruzalean eragindako orban ilunak kentzeko, egositako ura erabili daiteke larruazala garbitzeko.

ERREZETAK

Kataplasma: zehatu hosto freskoak, eta

ezarri mina erreumatikoa dugun eremuaren gainean.

Egostea: ur-litro bakoitzeko 30 g hosto fresko behar ditugu. Minutu batzuetan egosiko dugu. Zauriak garbitzeko erabili dezakegu. Gainera, zauriak orbaintzen lagunduko du. Era berean, zauria garbitu ostean, haren gainean ipini ditzakegu egositako hostoak, kataplasma moduan, ordubetez.

Konpresak: egosi eta busti uretan, esaterako, toalla bat. Bihurritu, eta ezarri tratatu beharreko eremuan, adibidez, zelulitisa dagoen eremuan.

Pomada: hosto freskoak txikituko ditugu, eta ordu pare batez egosiko ditugu 200 g oliba-oliotan eta 40 g argizari birjinatan. Gutxienez 12 orduan izango dugu jalkitzen. Ondoren, berriro berotuko dugu ondo iragazteko eta potoetan sartzeko.

KONTRAINDIKAZIOAK

Ederina da huntzaren osagaietako bat, bere toxikotasunaren eragile nagusia ere badena. Horregatik, ez da ahotik hartu behar. Bestalde, bere fruitua da beltz koloreko baia txiki bat, pozoitsua dena, eta hori ere ez da inoiz jan behar.

Landareak batzeko aholkuak

Orokorrean: hartu ondo ezagutzen duzuna; hartu neurritz eta soilik lekuan asko badaude; ez eraman dena, utzi beti zerbait; hartu bakarrik erabiliko duzun landarearen zatia; ez atera sustraitik, moztu ondo hazten jarrai daitezten; ez moztu loreen % 20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak badira; hartu bakarrik erabiliko duzuna, geroago itzuli ahal zara, edo beste leku batzuetara joan; ez jaso gune babestuetan edo parke naturaletan.

Non: larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko basoetan; toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan.

Noiz: goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunean bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatzeko, hobe da ilbehera denean jasotzea.

Materialak: eskularruak, artaziak, papezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak...



TALDEA **GURENA**
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

ZURE NEURRIRA



BABESPEKO APARTAMENTUAK

EGONALDIAK EGOITZEAN

egunean
gauean
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180

(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com

SUKALDARITZA

Katxopoa



FREEPIK/STOOKING

Osagaiak (lau lagunentzat):

4 haragi-xerra (bakoitza 120 g-takoa, eta «liburutxo» moduan ebakita)
4 urdaiazpiko serrano-xerra
8 gazta-xerra krematsu
100 g irin
200 g ogi birrin
2 arrautza handi (irabiatuak)
Olioa
Gatza

Prestatzeko era:

Xerretako bat hartuko dugu, eta gatza botako diogu. Erdietako batean ipiniko dugu gazta-xerra bat, gero urdaiazpiko-xerra bat, eta, azkenik, beste gazta-xerra bat. Beste xerra erdia gainean ipini, eta haragiaren ertzak sakatuko ditugu, haragia ondo lotu dadin eta betegarria barruan gelditu dadin.

Gainerako haragi-xerrak ere prestatuko ditugu. Katxopoak pasatuko ditugu irinetik, arrautzatik eta ogi birrinetik. Zartagin batean olio berotuko dugu, eta katxopoak su ertainean frijituko ditugu. Nahi izanez gero, patata frijituek edota piper frijituek lagunduta atera ditzakegu mahaira.

Barazki-tian



FREEPIK/KAMIRANAYDINOV

Osagaiak (lau lagunentzat):

2 berenjena txiki
Kalabazin bat
2 kipula more
3 tomate
60 g tomate-saltsa

Olioa
Gatza
Piperbeltz beltz ehoa
Ezkai sikua
Oregano sikua


Prestatzeko era:

Berenjenak ondo garbitu, sikatu, eta xerratan ebakiko ditugu (0,5 cm-ko lodiera gutxi gorabehera). Xukaderan ipiniko ditugu eta gatz apur bat botako diegu gainera. Hogeita hamar minutuan izango ditugu jalkitzen, ur mingotsa bota dezaten. Ondoren, sukaldeko papera erabilita sikatuko ditugu. Kalabazina eta tomateak garbitu, eta xerra apur bat mehegotan ebakiko ditugu. Kipulak zuritu, eta xerratan ebakiko ditugu. Barazki guztiak prest ditugunean, plate-

ra prestatuko dugu. Labeko molde batean zabalduko dugu tomate-salsa. Barazkiak kiribil-forman ipiniko ditugu, adibidez, era honetara: kalabazina, tomate, berenjena, kipula, kalabazina, tomate... Gatza, piperbeltz beltza, ezkaia eta oreganoa botako dizkiegu gainera, baita olio-txorrotada bat ere. Moldea labera sartuko dugu (aurretik berotuta), eta bertan ordubetez izango dugu 180 gradutan, edo harik eta barazkiak bigun eta apur bat gorrituta dauden arte.

DENBORA-PASAK

Inurritegitik irten, eta galdu egin dira inurriak. Zein bidetatik joan behar dute lagunekin batzeko?



Saguzarra badoa hegaz, baina zein da bere itzala?
Bat bakarrik da zuzena.



ABENDUKO AGENDA

2, astelehena

Azken eguna Gabonetako Postal Lehiaketan parte hartzeko SONDIKA
Udaletxean, 14:00ak arte

Olentzerori eta Mari Domingiri gutuna bidaltzeko postontziak SONDIKA
Liburutegian eta ludotekan, abenduaren 20ra arte

Patchwork ikastaroan izena emateko epea LARRABETZU Anguleri kultur etxean, abenduaren 13ra arte

Olentzerori eta Mari Domingiri gutuna bidaltzea LARRABETZU, Anguleri kultur etxean, abenduaren 20ra arte

3, martitzena

Euskararen Eguna LARRABETZU

7, zapatua

Durangoko Azokara joatea LARRABETZU

9, astelehena

Izena ematea lekua dagoen ikastaroetan SONDIKA Abenduaren 13ra arte. Informazio gehiagorako: 944 535 171

Izena ematea udal-ikastaroetan SONDIKA Udal-liburutegian, abenduaren 13ra arte

10, martitzena

Gabonetako postalen erakusketa LARRABETZU Anguleri kultur etxean, abenduaren 20ra arte

13, barikua

17:15 **Ni neu, zu zeu ipuina, Ana Apikaren eskutik. LEZAMA** Kultura Aretoan

18:00 **Elkartasun txokolatada LEZAMA** Plazan

18:00 **XXI. Postal Lehiaketaren sariak banatzea LARRABETZU** Eskolako jantokian

19:00 **Gabonetako argiak piztea LEZAMA**

TOC taldearen diskoa aurkeztea LARRABETZU Hori Bai gaztetxean

14, zapatua

18:00 **Dantzaldia, Duo Xandalorekin SONDIKA** Jubilatuen Etxean

20:00 **Gabon-kantak:** Ekidazu Lezamako abesbatza, Emitenia eta Mungiako Jose Maria Arregi abesbatza **LEZAMA** Andramari elizan

15, domeka

Auto klasikoen erakusketa LARRABETZU Plazan

17, martitzena

19:00 **Zinekluba: Ser real (Emilio Encabo) LARRABETZU** Ludoteka gaineko aretoan

19, eguena

XXXIII. Gabonetako Postal Lehiaketaren lanen erakusketa SONDIKA udal-liburutegiko erakusketa-aretoan, urtarrilaren 31ra arte

19:00 **Literaturaz Berbetan: Arrain hezur bat eztarrian,** Olatz Mitxelena berbalagun **LARRABETZU** Ludoteka gaineko aretoan

19:00 **Izar Argia abesbatzaren eta Musika Eskolaren ikasleen kontzertua LARRABETZU** Andra Mari elizan

20, barikua

17:00 Neguko jaialdia LARRABETZU Eskolako aterpean

22, domeka

18:30 **Domekak Hori Bain: Eñaut Elorrieta**



www.aikor.eus

hemen zure publizitatea falta da

Zure negozioari **IKUSGARRITASUN HANDIAGOA** eman nahi diozu?
Hemen duzu aukera!

Zergatik aukeratu aikor?

Tokiko irismena: publiko konprometitu eta hurbil batengana iristen da.

Diseinu pertsonalizatua: publizitate-espazioak eskaintzeaz gain, neurrira egindako diseinuak sortzen ditugu.

2025erako eskaintza eksklusiboa: aprobe txatu gure tarifa bereziak eta zure aurrekontura eta helburuetara egokituko ditugun sustapen-paketeak.

INFORMAZIO GEHIAGO:
www.aikor.eus
688 864 135

aikor.